



*txanela*

# Irakaslearen gidaliburua (zirriborroa)

# 4

**... eta horrela bizitzen gara...**

(Txanela - Material globalizatua,  
Lehen Hezkuntza - 5. maila)

## TXANELA 5: LAUGARREN UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDA

### “ETA HORRELA BIZITZEN GARA...”

**Unitatearen haria eta helburua:** Unitate honetan, giza gorputza elkarri loturik eta koordinaturik funtzionatzen duten aparatuen sistema dela ikusiko dugu, elikagaiak (motak eta hauen zeregina gorputzean), digestio-aparatua eta digestio-prozesua ere langai izango ditugu.

Elikatzea gizakion ezinbesteko funtzioetako bat dugu. Egunero elikatu beharra dugu, gure gorputzak bere funtzioak behar bezala bete ditzan. Hori dela eta, unitate honetako proiektuak, elikagaiak eta hauen funtzioak ezagutu eta dieta orekatuaren garrantziaz jabetzeaz gain, elikagaien prestaketa lanetan ere trebatzea izango du helburu. Beraz, gelan eta baita etxean eta etxekoan laguntzaz elikagai batzuen prestaketan trebatuko dira gure ikasleak, euren bizitzarako hain garrantzitsua izango den alderdietako bat, pixkanaka jorratzen has daitezten.

#### **Sekuentzia tematikoaren laburpena:**

##### **Gorputza; organo eta aparatuen sistema**

Sistemaren kontzeptua. Gorputzeko aparatuen arteko erlazioa. Aparatu nagusien funtzio orokorra.

##### **Elikagaiak**

Elikagai eraikitzaileak: proteinak

Laborategian nola ibili behar den: arriskuak, ardura, parte-hartzea.

Elikagai energetikoak: karbohidratoak eta koipeak.

Jolasa eta patata-dantza.

Elikagai erregulatzaileak: bitaminak, gatz mineralak eta ura.

Dieta orekatua.

Elikadura arazoak: anorexia, bulimia, gehiegizko loditasuna.

Autoestimua lantzeko eta sentimenduak adierazteko jolasak.

Otorduak, ospakizun eta komunikaziorako (g)une.

Elikagaiekin esperimenduak.

##### **Digestio-aparatua eta digestio-prozesua**

Aho-fasea, urdail-fasea, heste-fasea (beherakoa eta idorreria).

**Proiektua:** Elikagai moten inguruan ikasitakoa kontuan izanik, hamaiketako egiteko pintxo eta edari osasuntsuak prestatu. Gelako errezeta bilduma ere osa dezakezue.

**Urte osoko proiektuak:** Lehenengo gidan proposatzen genituen txokoekin jarraitu, edota egoki ikusiz gero, besteren bat martxan jar dezakezue.

## ZEHAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Giza eskubideak, harremanak, bake hezkuntza.	Norberaren kultura eta ohiturekiko begirunea eta errespetua. Mahai inguruan ematen den etxekoen arteko komunikazioa. Autoestimua Sentimenduak. Pentsamendu baikorra. Norberaren gorputzaren onarpena.
--	--

## EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	<p>“<i>Ama goseak nago ni</i>” “<i>Aita Periko</i>” “<i>Pan!</i>” “<i>Mari bentanas</i>” Anjel Lertxundi.</p> <p>“<i>Biba rioja</i>” Joxe Maria Iparragirre.</p> <p>“<i>Bizkaiko txerriari jarriak</i>” Valverde, Lete eta Lekuona.</p> <p>Igarkizunak, Txiliku.</p> <p>Gaiaren ipuina: “<i>Bihotzerrearen kulpaz</i>”: Mitxel Murua.</p> <p>Ipuin literarioa: <i>Garmendia eta Fannyren sekretua</i>. Kirmen Uribe.</p>
Arte hezkuntza	<p>“<i>Munduko ondasuna</i>” gaiaren abestia, Joxean Ormazabal.</p> <p>“<i>Mari Andresen korotsa</i>”, Oskorri.</p> <p>“<i>Bizkaiko txerriari jarriak</i>” Valverde, Lete eta Lekuona.</p> <p>Entzunaldia: “<i>Gartxot</i>”, Pello Ramirez.</p> <p>Artelanak: Juan Etxebarria</p>
Ingurumena	<p>Kultura: Azoketako produktuak, tabernetako pintxo-jana, bertso afariak, euskal sukaldari eta sukaldaritza...</p> <p>Hizkuntza: Jakien izendapena euskalki ezberdinetan.</p>

## 5.4 UNITATEA “Eta horrela bizitzen gara...”

### EDUKIAK

HIZKUNTZA		INGURUNEA			JARRERAK
DUKI BLOKEA	KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	PROZEDURAK	KONTZEPTUAK	
1. AHOZKO KOMUNIKAZIOA		<p><b>Talde-elkarrizketa</b> (11, 14, 22, 29, 30, 33, 51)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Parte hartzea prestatzea: galdetegiko erantzunak pentsatzea</li> <li>-Gidoia (galdetegia) jarraituz aritzea</li> <li>-Norberaren hitzak (iritziak, baieztapenak...) arrazoitzea</li> </ul>	<p><b>Euskal sukaldaritza; sukaldeko lanak; landare, animalia eta gizakien elikadura; norbere elikahiturak; dieta orekatua; elikadura arazoak</b></p> <p><b>Sentimenduen adierazpena; autoestimua; pentsamendu baikorra</b></p> <p><b>Otorduak, ospakizun eta komunikaziorako une eta gune</b></p> <p><b>Hesteetako gaixotasunak: beherakoa eta idorreria</b></p>	<p>Hausnarketa eta jarrera kritikoa</p> <p>Autoestimua, norberaren izaera eta gorputzaren onarpena (30,31)</p> <p><b>Errespetua</b></p> <p><b>Elkartasuna, besteen egoera eta bizipenenganako interesa (30)</b></p>	
		<p><b>Ahozko azalpena</b> (15, 17, 19, 25, 40, 42, 46, 49, 55)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Planifikatzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>·Irakurketa erreflexiboa. Aukerako (hauta lanerako) irakurketa</li> <li>·Sintesi prozedurak: eskemak, krokisak</li> <li>·Euskarri grafiko eta idatziak erabiltzea: krokisak, irudiak</li> <li>·Elkarlanean trebatzea, elkar zuzentzea</li> </ul> </li> <li>-Azalpena burutzea</li> </ul>	<p><b>Elikagai motak</b> (15, 16,17,19, 25, )</p> <p><b>Digestioa, digestio-aparatua, digestio-prozesua (faseak)</b> (40, 42,46, 49)</p>	<p>Elkarlana</p> <p><b>Konpartituz ikastea balioetsi</b> (15, 16, 17, 19, 25, 42, 46, 49)</p>	

HIZKUNTZA		INGURUNEA			
EDUKI BLOKEA	KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	PROZEDURAK	KONTZEPTUAK	JARRERAK
2. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA		<p>Kontzeptuak ondorioztatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Hiztegi-artikuluak eta krokis ohardunak interpretatzea</li> <li>-Elementu ezberdinak konparatzea</li> <li>-Iturri edo testu desberdinetako informazioak erlazionatzea</li> </ul> <p>- Osotasuna eta zatiak erlazionatzea (7, 8).</p>		<p>Giza gorputza, aparatu sistema Zelulak, ehunak, organoak eta aparatuak; funtzio eta erlazio nagusiak. Janari, edari, elikagai, matenugai edo nutriente, elikatu (13). Digestio-aparatuko organoak, guruinak, urinak (42)</p>	
	<p>Hizki-zopa, hitz gurutzatuak</p> <p>Definizioak</p> <p><b>-Formalak</b></p> <p><b>-Xebreak</b></p> <p><b>Hitzen osaera: -ki</b> atzizkia</p>	<p>Hiztegiaren erabilera</p> <p>Hitzak definitzea</p> <p>Hitzak sailkatzea</p> <p><b>-Familia semantikoen arabera sailkatzea</b></p> <p>Osaerari erreparatuz esanahia ondorioztatzea</p>	<p><b>Gaiko hiztegia: frutak, elikagaiak, janariak eta janari motak (10, 13)</b></p> <p><b>Ahoa, Hortzeria, sudurra. Zaporeak eta usainak (43, 44)</b></p>		Sormena
	<p><b>Eskemak</b></p> <p>-Ezaugarriak, elementuak</p> <p>-Motak: geziduna, giltzaduna, zenbakizkoa, koadroduna</p>	<p><b>Informazioa eskema bidez sintetizatzea (15, 16, 17, 19, 25, 42, 46, 49)</b></p> <p>-Zuzendutako irakurketa erreflexiboa</p> <p>-Ereduak aztertzea</p> <p>-Testuko gaia, azpigaiak, ideia nagusiak eta xehetasunak bereiztea</p> <p>-Ideen arteko erlazioak aurkitzea</p> <p>-Era grafikoan adieraztea</p> <p><b>Eskemetan bildutako informazioaren ahozko azalpena</b></p>	<p><b>Elikagai motak</b></p> <p><b>-Eraikitzaileak: proteinak</b></p> <p><b>-Energetikoak: karbohidratoak eta koipeak</b></p> <p><b>-Erregulatzailak: bitaminak, gatz mineralak eta ura</b></p> <p><b>Digestio prozesua: aho-, urdail- eta heste-faseak, organo nagusiak, guruinak eta urinak</b></p>		<b>Konpartituz ikastea balioetsi (15, 16, 17, 19, 25, 42, 46, 49)</b>

			<b>Esperimentuak burutzea</b> (18, 20, 21, 27, 50) -Jarraibideen arabera ekitea -Behaketei buruzko oharrak hartzea -Ondorioak ateratzea -Informazioak egiaztatzea	<b>Laborategia:</b> oinarrizko arau eta aholkuak <b>Janariak eta proteinak; janariak eta karbohidratoak; janariak eta koipeak (ingelesez); janariak eta ura; patata eta gatza</b>	Erantzukizuna ((18, 20, 21, 27, 50)Elkarlana
	<b>Jarraibide-testuak</b> -Jolasen jarraibideak -Errezetak -Eskulanak	<b>Irakurketa erreflexiboa</b> (22, 23, 26, 41) -Jarraibideen arabera ekitea		<b>Jolas herrikoiak; pintxoak; freskagarriak; digestio-aparatua</b>	Elkarlana
		<b>Irakurketa erreflexiboa</b> (29, 30) -Informazio nagusia identifikatzea		Dieta orekatua (29) <b>Elikadura arazoak: anorexia, bulimia, gehiegizko loditasuna</b>	Hausnarketa kritikoa
	<b>Errezetak</b> -Helburua -Elementuak eta egitura, ordena kronologikoa -Aginduak adierazteko moduak -Hiztegi zehatza	Errezeta-idazketa (32) <b>-Ereduak hautatu eta imitatzea</b>			
	<b>Posta elektronikoa</b>	Informazioa biltzea ( 37) <b>-Posta elektronikoaren erabilera</b>			
		<b>Aukerako (hauta lanerako) irakurketa</b> (40) -Datu eta ideia zehatzak aurkitu eta galderak erantzutea		Digestioa, digestio-aparatua, digestio-prozesua (40)	

HIZKUNTZA			INGURUNEA		JARRERAK
EDUKI BLOKEA	KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	PROZEDURAK	KONTZEPTUAK	
3. HIZKUNTZARI BURUZKO HAUSNARKETA	Denbora-antolatzaileak Aginduak adierazteko moduak	<b>Ereduak imitatzea (32)</b>			Esfortzua
	Erlatibozko esaldiak <b>-Kalko edo erabilera okerrak</b>	<b>Eredu zuzenak imitatzea (52)</b>			
4. HIZKUNTZAREN GIZARTE DIMENTZIOA	<b>Euskalkiak</b> -Janariei buruzko lexikoa	<b>Informazioa biltzea eta antolatzea (37)</b>			<b>Jakin-mina</b> , norbere hizkera aberasteko interesa

<b>HIZKUNTZA</b>		<b>INGURUNEA</b>			
<b>EDUKI BLOKEA</b>	<b>KONTZEPTUAK</b>	<b>PROZEDURAK</b>	<b>PROZEDURAK</b>	<b>KONTZEPTUAK</b>	<b>JARRERAK</b>
<b>5. LITERATURA</b>	Abestia	<b>Irakurketa erreflexiboa (9)</b> -Gaia eta ideia nagusia identifikatzea -Testuko edukia norbere bizipen eta aurrezagutzekin lotzea  <b>Irakurketa/entzuketa kritikoa (34)</b>  <b>Buruz ikastea eta abestea</b>		<b>Osasuna eta elikadura; otorduak; janariak eta elikagaiak, bitaminak</b>	
		<b>Olerkien irakurketa adierazkorra (12)</b>			
	Pertsonaia edo talde baten abentura liburuak eta bildumak	<b>Atseginerako irakurketa (24)</b>			Irakurzaletasuna
	<b>Otordu-giroko</b> esamolde, esaera, txiste eta abestiak	<b>Ahozko literatur erreferenteak interpretatzea eta errepikatzea (33, 35, 37, 38, 39)</b> -Testua osorik entzutea/irakurtzea -Esanahi orokorra interpretatzea -Buruz ikastea -Errepikatzea: dramatizatzea, errezitatzea, abestea, kontatzea			<b>Parte hartze aktiboa</b> ahozko ondarearen transmisioan



	<p>Bertsolaritza  <b>-Jan-edanari bertso-saioak: loturiko bertso-afariak</b>  <b>-Kopla handia: neurri handiko egitura, etena</b></p>	<p><b>Entzuketa arretatsua eta kritikoa (36)</b>  <b>Emandako irizpideei jarraituz, bertso-lerroak neurtzea eta egokitzea (36)</b></p>			<p>Jarrera kritikoa</p>
	<p>Igarkizunak</p>	<p>Igarkizunak interpretatzea, imitazioz berriak sortzea  <b>(45)</b></p>			<p>Sormena</p>
	<p>Ipuina</p>	<p><b>Irakurketa erreflexiboa (47, 48)</b>          -Edukiari buruzko hipotesiak egitea: izenburuan oinarrituz, testuari gainbegiratua emanez          -Gaia, komunikazio-asmoa, testu-mota identifikatzea          -Hitz, esamolde eta esaeren esanahia interpretatzea          -Testuko edukia norberaren bizipen, ideia eta aurrezagutzekin lotzea          -Fikzioa eta errealitatez bereiztea, informazio erreala ondorioztatzea</p>	<p><b>Bihotzerrea:</b> zerk eragiten du, nola sortzen da, nola aurre egin</p>		

# IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkarteak hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoak ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jardura sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** ([www.txanela.net](http://www.txanela.net)). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** ([www.ostadar.net](http://www.ostadar.net)). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jardura zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

\* \* \* \* \*

## Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jardura ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzailu, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitaletan edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

## TXANELA 5

IKASLEAREN LIBURUA - 4. UNITATE DIDAKTIKOA

### BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA
0		Baliabideen taula	3	153
4		Proiektuaren aurkezpena	7	157
7		Sukaldaritza Interneten	8	158
7		Berria.info/hemeroteka	8	158
8		Giza gorputza	13	163
10		<i>Munduko ondasuna</i>	14	164
12		Euskal sukaldaritza eta sukaldariak	15	165
16		Elikagai motak	17	167
19		Esperientziak	21	171
31		<a href="http://www.ikastola.net">www.ikastola.net</a>	32	182
31		<a href="http://www.hiru.com">www.hiru.com</a>	32	182
32		Entzunaldia: <i>Gartxot</i>	35	185
32		Konpositoreen Txokoa	35	185
34		Errezetak idazten	36	186

36		Bertsoz: Biba Rioja	38	188
38		Bertso saioa	38	188
39		Hiztunak eta hizkuntzak: janariak eta esamoldeak	39	189
40		<i>Bizkaiko txerriari jamiak</i>	39	189
42		Digestio-prozesua	40	190
44		Digestioa: azalpenak	42	192
46		Dastamena eta Usaimena	44	194
53		<i>Mari Andresa(re)n gorotza</i>	48	198
54		Erlatibozko esaldiekin txateatzen	49	199
57		Digestio-eskema osoa	50	200

# JARDUEREN ANALISIA

## 1. Azalari behaketa eta elkarrizketa

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Unitate didaktikoaren azala*

Aurreikuspena landu eta haurrak motibatzen asmoz, tarte bat emango diegu ikasleei, bakarka, azalari xehetasunez beha diezaioten. Gero, talde-elkarrizketa martxan jarriko dugu. Elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntza-funtzioetan oinarrituko gara (ikus 5.1 unitateko 6. jarduera), elementuak izendatuz, euren artean erlazionatuz, esandakoa arrazoituz eta iragartzeari bidea emanez.

- *Zer adierazi nahi du izenburuak? Nola esango zenukete bizi zaretela zuok? Aipatu otutzen zaizkizuen ideia guztiak nola bizi zaretan adierazteko.*
- *Aztertu irudia eta aipatu bertan agertzen dena. Zertan ari da pertsonaia bakoitza? Adieraz ezazue xehetasunik txikienari ere erreparatuz. Ezaguna egiten al zaizue egoera hau? Antzekorik bizi izan al duzue inoiz? Azal ezazue noiz, norekin, zer egiten duzuen, gustuko duzuen edo ez...*
- *Zein erlazio dago irudia eta izenburuaren artean?*
- *Zeri buruzkoa uste duzue izango dela unitate hau? Irudiari behatuz, zein alderdi uste duzue jorratuko duzuela? Arrazoitu zuen erantzuna.*

## 2. Komikia eta aurre-ezagutzak

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 4., 5. eta 6. or.*

Komikia irakurri aurretik izenburuari erreparatuko diogu:

- *“On egin!” esamoldeak, zer adierazi nahi du? On egin diezazula.*
- *Noiz edo zein egoeratan erabiltzen da? Zergatik edo zertarako? Zuk erabiltzen al duzu? Eta antzekorik? Keaprobetxe adibidez.*
- *Norbaitek on egin esaten duenean, nola erantzuten zaio? Baita zeuri be! Berdin!*
- *Esamolde honek janaria ez den beste edozein ekintzarekin erabiltzeko badu parekoa. Ba al dakizu zein izan daitekeen? Bejon diezazula!*
- *Zeri buruzkoa uste duzu izango dela komikia?*

Ikasleek komikia bakarka irakurri eta behatu ostean elkarrizketa sortuko dugu (ikus Tough-en funtzioak 5.1. unitateko gidan) talde handian ondoren proposatzen dizkizuegun gaien inguruan hitz egiteko.

- *Zein da komikiko gaia? Nola laburtuko zenuke hitz gutxitan zer den komikian gertatu dena?*
- *Komikiaren gaia izenburuarekin erlazioa ezazu. Ba al du zerikusirik?*
- *Aztertu ezazu Maddiren aurpegia lehenengo binetan eta esandakoa kontuan harturik esazu, zer adierazten du bere aurpegiak? Aurpegiak adierazten duena eta berak aipatu ez duena aipa ezazu zuk hitzen bidez, bere hitzak balira bezala.*
- *Norbaitekin gelditzen garenean, zure ustez, garrantzitsua al da ordurako iristea? Zergatik? Egoera guztietan al du garrantzia bera puntuala izateak? Jolaserako edo autobus bat hartzeko adibidez. Zergatik? Zuk puntuala izatea gustuko al duzu? Eta besteak puntualak izatea atsegin al duzu? Nola jokatuko zenuke zurekin geratu eta garaiz iritsi ez den lagun batekin? Zergatik? Nola sentitzen zara garaiz iristen ez zarenean nonbaitera?*

- Hitzordua betetzeari dagokionez, Maddik eta Manexek ez diote garrantzia bera ematen, zergatik izango ote da hori, alegia, gertaera beraren aurrean ezberdin jokatzea?

- Azter ezazu Maddiren aurpegia bigarren binetan, Argi ikusten duenean, zer adierazten dute Maddiren burutik ateratzen diren marra beltz horiek? Behatu orain hirugarren binetan duen aurpegia eta esaten duena, zer uste duzu ari dela pentsatzen eta sentitzen Maddi? Zergatik?

- Hiru pertsonaiek iritsi ezberdina dute Argiri buruz. Zergatik uste duzu izango dela hori? Bakoitzak arreta gauza jakin batean jartzen duelako eta eurentzako garrantzitsua den horren arabera baloratzen dutelako haren jokabidea. Ba al du zerikusirik neska edo mutila izateak iritzi bat edo beste izateko? Saia zaitez hiru pertsonaiek adierazten dutenari erreparatzen eta zure ustez bakoitzak baloratzen duena azpimarratzen, esandakoa ere justifika ezazu. Zu zein pertsonaiarekin identifikatzen zara? Zergatik?

- Zure ustez, nolakoa da Argi? Zergatik?

- Nora eta norekin doaz gure pertsonaiak eguna pasatzera? Nola dakizu nor diren gure pertsonaiez gain mendira joan diren helduak, hau da, zerk eman dizu hori jakiteko pista? Zuk gogoko al duzu mendira joatea? Zergatik? Baduzu ohiturarik joateko? Noiz eta norekin eta zein maiztasunarekin joaten zara?

- Zure ustez Aitor sasoian al dago? Zergatik diozu hori?

- Zergatik esaten dute denek patata argazkia ateratzerakoan? Zuk ere ohitura bera al duzu? Horrelako egoera berezietan argazkiak ateratzea gustuko al duzu? Zergatik edo zertarako?

- Manexek mendian aurkitzen dituen lagun guztiak agurtzen ditu, Ibrahimek Manexek lagun asko ezagutzen dituela uste du, hala al da? Zergatik uste duzu mendian aurkitzen ditugun lagun guztiak agurtzeko ohitura dugula euskaldunok? Zuk agurtzen al dituzu? Eta kaletik zoazenean?

- Jonek bainua eta digestioa aipatzen ditu. Zer erlazio dago bi hauen artean? Zer dakizu horretaz

- Ibrahimek ez omen du txerrikirik jaten. Zergatik uste duzu dela? Jonek oster, gaizki ulertu eta Maddi dela txerrikeriak ekarri eta jaten dituen dio. Zer esan nahi du horrekin? Esandakoarekin bat al zator? Zergatik?

- Uxuek gorputzeko abisua aipatzen duenean, zeri buruz ari da? Nola dakizu? Zerk irudik adierazten du hori? Zure ustez puzker horrek hatsa izango al du? Zerk adierazten du hori? Zuk puzkerrak botatzen al dituzu? Noiz eta zergatik? Zure ustez ona al da puzkerrak botatzea? Eta edonon eta edozeinen aurrean botatzea? Zuk botatzen al dituzu edonon eta edozeinen aurrean? Inoiz atera al zaizu baten bat nahi gabe? Eta zer sentitu duzu? Hitz egin ezazue gai honen inguruan, konta ditzatela hainbat anekdota, gaia oso erakargarria baita eurentzako eta hitz egiteko aukera paregabea.

Bukatzean, tarte bat emango diegu, aurre-ezagutzetan dituzten komikiei buruzko galderak irakurri, komikiari behatuz hausnartu eta talde txikitan elkarrizketa sortzeko. Talde txikietako elkarrizketa bukatzean, talde bakoitzeko kide bat, bozeramailea, talde handiari hitz egindakoaren sintesia egiten saiatuko da, horretarako egokiak diren esaldi-egiturak erabiliz (ikus eta gogora ekarri 5.3. gidako zirriborroan 2. jardueran proposatutakoak), “gai honen inguruan gure taldeko guztiak bat gatoz...”.

Aurre-ezagutzetako orriko argazkietan hainbat elikagaien irudiak agertzen dira, ez galdu aukera hauen izenak aipatzeko, elikagaien inguruko hiztegia aberasteko asmoz.

Komikian agertzen den esaera, *On egin diezagula janak eta kalterik ez edanak*, erranak erran txokoan idatz ezazue eta baita unitatea landu ahala gaiarekin zerikusia duten eta agertuko diren (ikasleek bilduak, liburuan bertan daudenak...) beste esamolde eta esaerak ere.

### **3. Komikiko binetak dramatizatzen**

*Lan egiteko era: Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 4. eta 5. or.*

Komikiko bineta bakoitzak adierazten duen egoera dramatizatzeari ekingo diogu. Horretarako, bineta banaketa egingo dugu, alegia, hiru ikaslek lehenengo bineta dramatizatuko dute, beste lau ikaslek bigarrena etab. Beraz, bineta bakoitzeko dauden pertsonaiak adina lagun, eta bat gehiago, izango dira talde bakoitzean. Pertsonaiak interpretatu behar dituzten ikasleek komikian esandakoa, eta, etendura puntu bidez esaten ez dena ere asmatu eta esan egin beharko dute. Pertsonaia jakinik ez duen lagun horren lana berriz, narratzailearen rola egitea eta pertsonaia guztien kontzientzia edo pentsamenduen bozgorailua izatea da. Alegia, bere bitartez pertsonaiek pentsatzen dutena jakiteko aukera izango dugu, ironia eta umorea emanaz jarduerari.

Hasteko, ikasleek tarte bat izango dute bineta irakurri eta behatzeko. Ondoren, inprobisazioa landu nahian, inolako entsegu barik bat-bateko interpretazioa egingo dute, binetek bizia hartuko balute bezala, bata bestearen atzetik interpretatuz. Ondoren, taldetxoetan bildu berriro ere, egindakoa baloratu, eta ikusitakoa eredu izanik, jarduera hobetzeko proposamenak egin, adostu eta entseatu ostean, berriro ere talde handiaren aurrean dramatizatzeari ekin diezaiokezue. Bukatzean balora ezazue talde handian egindako lana.

### **4. Proiektuaren aurkezpena**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 7. or.*

Unitate honetan proposatutako proiektua hamaiketako ederra prestatzea da, osasuntsuak diren era askotako jaki eta freskagarriekin. Hamaiketakoa gela barruan nahiz kanpoan eta jende gehiagori zabalduaz, gonbidapenak bidaliz, presta dezakezue. Pintxo eta edari bakoitzak etiketatxo moduko bat ere izan dezake, izena adierazteko edota dituen elikagai nahiz mantenugaien inguruko informazioa emateko ere. Errezeta ugari bilduko dituzue unitatea landu ahala, gelako errezeta-bilduma osatzea ere proposatzen dizuegu, horretarako pintxoei argazkiak aterez.

Irakasle, komenigarria litzateke proiektuaren aurkezpenarekin batera proiektua gauzatzen orria ere begiratzea, proiektuaren nondik norakoa hobeto ulertu dezazuen.

Nahi izanez gero, Karlos Arguiñanok edo Pedro Subijanak telebistan egiten duten programa horietako bat ere presta dezakezue. Aukera ezazue aste jakin bat. Zabal ezazue ikastolan noiz eta non egingo duzuen saioa. Programa egiteko, musika, sukaldea izango dena, janzkera, txisteak eta abar prestatu. Aukeratu errezeta erraz batzuk eta egun bakoitzean ikasle jakin batzuek euren errezeta aurkeztu diezaiokete bertan bildutako ikuslegoari. Programa bukatzean, egindako errezeta horien kopiak banatu ditzakezue ikuslegoaren artean, aldi berean, zuen esker ona ere adieraziz.

Jarduerari dagokionez, bakarka lehenik eta talde handian ondoren, proiektua aurkezten den orrialdea irakurriko dugu. Hitz egin ezazue orrialde horretan agertzen den ideia bakoitzaren inguruan.

- Zer da hamaiketakoa? Zein ordutan egiten da?
- Zer esan nahi du “tripak orroka” izateak? Noiz erabiltzen da esamolde hori? Antzekoren bat ezagutzen al duzue? Tripa zorriak... Jar itzazue bildutakoak erranen tokian.

“Txirikitin txinea, bihar domekea, txokolatez beterik...” Tapia eta Leturiaren “Hain zuzen” CDko “Astotxo bat baneuko” abestiaren koplak bat da. “Aho goseari nork jarri stopa? Mahai inguruan beti jezartzen da tropa” Oskorriren “Desertore” CDko “Lamikizko sukaldaria” abestiaren zatia da, laugarren mailan ikasi zuten. Euskal abesti ugaritan aurkitzen ditugu elikagaiak, jana ez denean edaria, abesti osoa edo koplaren baten gai bezala. Aukera polita da hau ikasleek etxean galdetzeko eta etxeko disko zaharrak arrotzeko, abesti hauen bila. Bilatutakoen artean bat edo beste ikastea ere proposatzen dizuegu, gure tradizioaren eta ohituren berri ematen baitute, hala ere, unitatean bat edo beste aurkeztuko da aurrerago.

## 5. Ikasnorabidea

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 8. eta 9. or.*

Gaiaren sekuentzia tematikoa zein den jakiteko, ingurumena arloari dagokion lehenengo zutabea irakurtzeari ekingo diogu. Ondoren, eman iezaiozue ikasleei tarte bat, bakarka nahiz binaka, gainontzeko informazioari gainbegiratzeko.

Gogora ezazue ikasnorabidea ikasleen ikasketa-prozesuaren auto-erregulaziorako tresna dela eta unitatean murgildu ahala, behin baino gehiagotan etorri beharko duzuela bertara, atal bakoitzean hainbat arlotan lantzen ari zareten edukiez jabetzeko. Ez ahaztu komenigarria dela ikasnorabidea begi bistan izatea.

## 6. Txoko zuria

*Lan egiteko era: Talde handian*

Behin ikasleek argi dutenean zein den egingo duten proiektua eta baita proiektu hori burutzean ikasiko dutena, txoko zuria hornitzen hasteko unea heldu da. Hau da, taldean hitz egin ezazue bakoitzak gaiarekin zerikusia duen zer elementu (argazki, abesti, errezeta-liburu, bideo...) izan dezakeen etxean gelara ekartzeko. Materiala ekarri ahala, txokoan jarriko dugu. Ikasle bakoitzak berak ekarritako materiala talde handiari aurkeztea komenigarria litzateke, gela guztiak txokoan dagoenaren berri izan dezan eta erabil dezan, behar edo egoki den momentuan.

Bestetik, irakasle, atlas anatomiko eta horma-irudiak eskuratzea unitatea lantzeko lagungarri gertatuko zaizu:

1. Gorputz osoarena, aparatu guztiak irudikatzen dituena.
2. Digestio-aparatuarena.



## 7. Prentsa idatzia eta internet

*Lan egiteko era: Talde handian*

Idatzizko prentsa (egunkariak, bailarako edo herrietako aldizkariak...) nahiz sareko prentsa behatuz ([www.berria.info/hemeroteka](http://www.berria.info/hemeroteka)) unitateko gaiarekin zuzenean erlazionatutako edukiei errepara diezaiekezue. Hona hemen hainbat aukera:

- Errezetak
- Elikagaiei buruzko berriak aurkitu
- Hainbat elikagaiekin lotura zuzena duten herri edo eskualdeetako ospakizun berezien (azokak, jaiak...) berri jaso: Txakolin eguna, Sagardo eguna, Santamasak...
- Euskal sukaldariei buruzko aipamenak jaso
- Elikadura arazoekin zerikusia duten artikulua (anorexia, bulimia, gehiegizko loditasuna...) jaso

## 8. Giza gorputza

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 10. eta 11. or.*

Giza gorputza sistema bat da eta halaber, elkarri loturik eta koordinaturik lan egiten duten organo eta aparatuz osaturik dagoela jabetzeko asmoz, talde handian bi orrialde horietan dagoen informazioa irakurri eta ariketak osatuko ditugu. Jabetze prozesuan laguntzeko, gure gorputza makina sinple eta konplexuagoak direnekin erlazionatzen saiatuko gara, giza gorputza, zati guztien batura baino gehiago dela jabetzeko, alegia, giza gorputza era holistikoa, sistema gisa, ulertzen lagundu behar diegu ikasleei.

## 9. Gorputzeko aparatu eta sistema nagusiak

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 12. eta 13. or.*

Bi orrialde hauen lanketan ikasleak ideia garrantzitsu bat barneratzen has daitezten saiatuko gara. Hau da, gizakiaren nutrizio beharrei erantzuteko hainbat aparatuk koordinaturik egiten duela lan: digestio-aparatua (mantenugaiak eskuratzeko), arnas aparatua (mantenugaien erreketaren ondorioz sortutako karbono dioxidoa kanporatu eta oxigenoa eskuratzeko), zirkulazio-aparatua (gorputzean zehar mantenugaiak, oxigenoa, hondakinak eta karbono dioxidoa garraiatzeko) eta iraitz-aparatua (bestelako hondakinak kanporatzeko). Beste aparatuek, mugitzeko beharrei (lokomozioa) eta ugalketa, hau da espeziaren bizirauteko premiari (ugalaparatua) erantzuten diote.

Tarte bat emango diegu ikasleei bi orrialde horietako informazioa irakurtzeko. Ondoren, binaka, giza gorputzaren eta auto baten artean aurki daitezkeen antzekotasunak eta desberdintasunak bilatzeari ekingo diete. Edozein konparazio jarduera egiten dugunean bezala, hautatutako ideiak egoki adierazteko erabili daitezkeen hitzak gogora ekarri eta erabil itzazue:

- Berdintasuna adierazteko: “*biak dira...*” “*biek dute...*”, “*Bata zein bestea...*” “*bata zein besteak...*”
- Desberdintasuna adierazteko: “*berriz*”, “*ordea*”, “*baina*”, “*ostera*”, “*aldiz*”...

Bukatzean, talde handian, binaka hausnartutakoa azalduko dugu. Elkar-jartze horretan orrialde horretako testuak ere irakurriko ditugu ozenki aipatutakoarekin erlazio zuzenak bilatu nahian. Bukatzeko gorputzeko aparatu bakoitzeko ezagutzen ditugun organoen izenak eta funtzioak aipatzeari ekingo diogu.

## **10. Kanta-kantari**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 14. or./CDa, 23. pista*

CDko “Munduko ondasuna” abestia isilean entzuten dugun bitartean ikasleek euren liburuan duten abestiaren letra irakurriko dute. Ondoren, bakarka, abestiaren letrari erreparatuz, talde handian hizpide izango dituzten galderen inguruan hausnartuko dute (abestiaren gaia, gaiari buruzko hiztegia: osasuna, otorduak, elikagaien izenak, elikagai eta janari arteko erlazioa...). Gero, elkarrizketa martxan jarriko dugu. Bukatzeko, talde handian, musikarekin batera abestia kantatzeari eta ikasteari ekingo diogu.

## **11. Frutak: hizki-zopa eta hitz gurutzatuak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka*

*Materiala: 10. lan-koadernoan, 4. orrialdetik 8.era/CD-ROMa*

Hainbat jakiren izenak ikasteko eta era berean, aurreko urteetan hasitako definizioen lanketari jarraipena emateko asmoz, ikasleek, gaiari buruzko hiztegi hitzen definizio formalak eta xebleak idatzi eta hitz gurutzatuak sortuko dituzte.

\*Hizki-zopako hamabi fruten izenak hauek dira: *okarana, mandarina, banana, pina, sagarra, gerezi, laranja, marrubi, udare, melokotoi, mahatsa eta meloia.*

Bestetik, definizioei dagokienez, hainbat hitzen definizio formalak eratzeko zaila gerta daitekeenez, ikasleek hiztegia erabiltzea ezinbestekoa izango dute, bide batez, honen erabilpenarekin ere trebatuz. Horrez gain, gogorazi iezaiezue, definizioen ezaugarri garrantzitsuena, zehaztasuna dela. Jar ezazue adibideren bat zehaztasunak duen garrantziaz jabetzeko.

Unitate honetan lantzen ari zareten elikagaien gaia oparota izan daiteke hitz gurutzatu ugari sortzeko, beraz, liburuko atalak landu ahala, taldean, sor daitezkeen gaiak adostu eta banatu ostean, presta itzazue, hitz gurutzatu gehiago, zuen bilduma osatzeko eta definizioen lanketan jorratzeko.

Gogoan izan, CD-ROMean gaiko hiztegia lantzeko hainbat jardura dituzuela.

## **12. Euskal sukaldaritza eta sukaldariak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 15. or./DVDa*

Euskal sukaldaritza eta sukaldarien berri ematen duen testu labur hori irakurri ostean, irakurritakoa eta testuaren inguruan agertzen diren argazkiei erreparatuz horiei buruz dakigunaz mintzatuko gara (euskal sukaldariak, azokak eta bertan egoten diren produktuak...) eta era beran proiekturako hainbat ideia proposatu eta adostuko ditugu. Ondoren, ahozko aginduan adierazi bezala, edozein plater edo pintxo prestatzeak dituen aurreko, bitarteko eta ondorengo lanez hitz egiteko parada ere hartuko dugu, alegia:

- Planifikazioa: lehengaiak, erosketak, baliabideak (lapiko, labea, irabiagailua...)
- Prestaketa lana
- Garbiketa eta txukunketa lana

Gogoan izan elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntza-funtzioetan oinarritu zaitezketela (ikus 5.1. unitateko 6. jarduera). Bestetik, irakasle, begiratu hizkuntza-arloko helburuen dokumentuan, elkarrizketa egoerekin zerikusi zuzena duten 3. eta 4. helburuei dagozkien irizpideak eta bat edo beste aukeratu ostean, bidera ezazu horren edo horien lanketa.

DVDa, orrialde honetan agertzen den informazioa irudi eta azalpen bidez osatzera dator, bertan gure herrietako azoka eta tabernetako pintxoek berri ematen baita. Jarduera hau osatzeko, egin ezazue herrira irteera eta ikusi itzazue aipatutako toki hauek bertatik bertara.

### **13. Olerkiak eta esamoldeak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 92. eta 93. or.*

Talde handian olerkiak irakurriko ditugu, deklamazioa lantzeko asmoz (baliabide prosodikoak etab.) eta era berean olerkien gaiak jabetzeko ere. Horrez gain, hauetako lehenengoa dramatizatzeko egokia izan daiteke, beste olerkiek adierazitako egoerak ere alde batera utzi gabe. Bestetik, olerki hauetan, gure ahozko adierazpena aberastu dezaket hainbat esamolde aurkituko dituzue, beraz, har ezazue tartea ezagutzen dituzuenak aipatzeko eta berriak sortzeko ere. Esamolde horiek guztiak edo aukeratutakoak behintzat erranen txokoan jar itzazue.

### **14. Elikagaien izenak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: 10. lan-koaderno, 9. eta 10. or.*

Gaiari dagokion hiztegiaren lanketarekin jarraitzeko asmoz, ikasleek, bakarka, lan-koadernoko jarduera osatzeari ekingo diote, horretarako, hiztegia erabiltzea oso lagungarria gertatuko zaie. Bukatzean talde handian jarduera berrikusteari ekingo diogu.

### **15. Elikagaiak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 16. or.*

Momentu egokia litzateke hau ikasnorabidera joan etorria egiteko.

Bizidun guztion ezaugarri bat elikatzea bada ere, modu ezberdinean elikatzen gara eta bakoitzak (nutrienteak) mantenugaiak elikagai ezberdinetatik lortzen dituela ikusteko ikasleen aurre-ezagutzak martxan jarriko ditugu taldean elkarrizketa eginez. Ondoren, janari, edari eta elikagaien artean dagoen erlazioaz jabetzeko asmoarekin, hurrengo jarduera ere taldean osatuko dugu, testuak ozenki irakurriz eta elkarrizketa bidez.

## 16. Elikagai motak (mantenugaien arabera)

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 17., 18. eta 19. or.*

Lehenik bakarka, eta ondoren, talde handian, elikagai motei buruzko testua irakurtzeari eta aztertzeari ekingo diogu, testuaren edukiaz (gaia, azpigaiak, ideia nagusiak) jabetzeko asmoz. Testu honen bidez, elikagaiak, nagusiki dituzten mantenugaien arabera, hiru multzotan sailkatzen direla ikusiko dugu, eta horiek izango dira hain zuzen ere ondorengo orrietan, sailkapen horren arabera adierazita azalduko zaizkigunak.

Elikagai motei buruzko informazioa ikasteko, era gidatuan, ikasleek eskemetan jaso beharko dute informazioa. Hori dela eta, 18. eta 19. orrialdetan eskemen inguruko informazioa emango zaie, hauen erabilpen eta motei buruz jabe daitezten. Bi orrialde hauetako informazioa talde handian irakurtzea komeni da eta irakasleak eman ditzakeen azalpen eta adibideekin hornitzea ere bai.

Sintesi-prozeduren artean, orain arte kontzeptu-mapak interpretatzen eta eraikitzen ibili gara, baita laburpentxoak egiten ere. Oraingoan eskemari emango diogu sarrera.

Hasiera honetan behintzat, taldean egin itzazu eskemak. Egin ondoren, ahoz berreraiki testua ikus dezaten hutsuneak eta agian falta dituzten xehetasunak zeintzuk diren. Ahozko trebatze-prozesua bukatutzat ematen duzuenean, egin itzazue idatzizko berreraikuntza saio batzuk.

18. orrialdean dagoen eskema, ikasleek ahoz zein idatziz adierazten jakin behar dutenez, eman iezaiezue tartea, horretan trebatzeko, binaka nahiz talde txikitik.

\*Liburuko 17. orrialdeko testuko informazio nagusia eta 18. orrialdeko eskemak eskaintzen dutenaren arteko alderaketarako aukerako galdetegia (liburuko galderak gehi beste batzuk).

- *Zertan bereizten dira bi eskemak: edukian ala hori aurkezteko moduan? Bietako zein da zuretzat irakurterazena?*
- *Zein da, bi kasuetan, eskemaren izenburua? Bat al dator testu osoko gaiarekin? Izenburuaz gain, nola adierazi da eskeman testu osoko gaia?*
- *Bat al datoz eskemaren atalak eta testuko azpigaiak? Nola adierazi da eskeman gai nagusiaren eta azpigaien arteko erlazioa?*
- *Nola adierazi dira eskeman testuko ideia nagusiak? Zuk hitz berberak erabili dituzu aurreko orrialdeko galdetegian horretaz galdetu zaizunean? Zertan bereizten dira eskemak ideia nagusiak adierazteko erabilitako hitzak eta zuk erabilitakoak?*
- *Hitzez gain beste zer elementu erabili dira? Nola antolatu edo banatu dira orrialdean hitzak eta bestelako elementuak?*
- *Nola adieraziko zenuke hitz gutxitan elikagai motei buruzko informazioa eskema horretan oinarrituz?*

\*19. orrialdean eskemen abantailen inguruan hausnartzeko eskatzen zaie ikasleei. Hona eskemak eskaintzen dizkigun abantaila batzuk:

- Gaia osotasunean ikus dezakegu.
- Atentzioa informaziorik garrantzitsuenean finkatzen laguntzen du.
- Ikasketa aktiborako lagungarria da.
- Memoriaz ikasten eta gogoratzen laguntzen du.
- Denbora irabaz dezakegu.
- Berrikusketak errazten du.

## **17. Eskemak egiten ikasten**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde handian*

*Materiala: 10. lan-koadernoa, 11. orrialdeetik 14.era*

Esan bezala, unitate honetan eskemak zer diren eta hauek nola egin daitezkeen ikasten hasiko gara. Oso garrantzitsua da irakasleak jakintzat ezer ez ematea eta pausoz pauso guztia elkarren artean eztabaidatzea eta konpartitzea. Jarrera bat ere indartu nahi da prozesu honetan zehar: elkarrekin ikastearen balioaz jabetzea, konpartitze hauek balioestea. Garrantzi handia eman nahi diogu konpartituz, besteek erabiltzen dituzten estrategiak eta prozesuak entzuteari, kontrastatzeari. Kontrastatuaz ikasi egiten dugu. Beraz, eskemen eraikuntzaren prozedura ikasteaz gain, aipatutako jarrera azpimarratu nahiko genuke.

Datozen unitateetan eta baita datorren ikasturtean ere (6. mailan), poliki-poliki ikasitakoa aplikatzeko hainbat eta hainbat aukera izango ditugu. Beraz, lehen urrats hauek lasai, konpartituz eta negoziatuz ematea funtsezkoa izango da. Bestalde, ez dugu ahaztu behar guztiok ez dugula ikasteko eta gogoratzeko sistema berbera erabiltzen. Zenbaitek eskema ulertzeko eta gogoratzeko xehetasun gehiagoz hornitzea beharko du, beste zenbaitek oinarrikoena den sailkapenean oinarriturik gaitasuna izango du gaia garatzeko. Horretaz ere hitz egin, baina hainbat era eta xehetasun kopuruko eskemak aurkeztu, konpartitu eta eraikitzea ahalbideratu eta ikasteko aukerak eskainiz.

Liburuan irakurritako eskemen inguruko informazioa aplikatzen ikasteko asmoz, ikasleek bakarka nahiz binaka (eta zerbaitetan beharrezkoa balitz, irakaslearen azalpenak tarteko), lan-koadernoko jarduera osatuko dute. Gero, talde handian berrikusketa eta zuzenketa lanari ekingo diogu. Lan-koadernoko jarduera hauek eta atzetik datozenak, informazioa aztertu eta eskemak osatzeko garrantzitsuena identifikatzen laguntzeko eginak izan dira. Beti ere, jakinik, eskemak egiteko modu bat aurkezten badugu ere, modu bat baino gehiago ere egon daitekeela. Beraz, eskemen jarduera hau ez da erabat itxia edota zehatza, xehetasunek ezberdintasunak marka baititzakete.

Bestetik, jarduera honetan, landare-jatorriko hainbat janari azaltzen zaizkigu, aprobetxa ezazue aukera hauen inguruan hitz egiteko, janarien izenak ikasteaz gain, mota eta erabilpenaren inguruko hainbat gauza ezagutzeko asmoz.

## **18. Elikagai mota: eraikitzaileak (eskema osatzen)**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 20. or./10. lan-koadernoa, 15. eta 16. or.*

Elikagai motei buruzko informazio gehiago eskuratu ahala, 18. orrialdeko eskema garatuz eta berreginez joango dira ikasleak. Lan horren lehen urratsa emateko, ikasleek, bakarka, 20. orrialdeko informazioa irakurri eta, bakarka nahiz binaka (alegia, lana lagun batekin kontrastatuz, argituz, edo kontsultatuz), lan-koadernoko jarduera osatuko dute. Jarduera talde handian berrikusi eta zuzendu ostean, ikasleek elikagai eraikitzaileei buruzko eskema euren koadernoan kopiatuko dute ikasteko. Eskemako informazioa ahoz zein idatziz adierazten jakin behar dute.

## **19. Esperimentua: Proteinak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 21. or./Irakurgaiak 5, 94. eta 95. or.*

Elikagaiak dituzten mantenugaiak hobeto ezagutzeko asmoz, unitatean zehar hainbat esperimentu erraz egingo dituzte ikasleek. Oraingoan, proteinekin esperimentatuko dute. Lehenik, irakurgaietan dauden laborategian kontuan izan beharreko aholkuak talde handian irakurriko ditugu, arriskuei aurrea hartuz, materialen garrantzia eta hauen erabilpen zuzena azpimarratuz, esperimentu aurretiko (materialen bilketa eta laborategiaren prestaketa), bitarteko (prozedurari dagozkionak eta bakoitzak bete beharreko ardurak) eta ondorengo (garbiketa lanak) lanen inguruan hitz eginez, hainbat ardura adostu eta erantzukizunez jokatzeko konpromisoa hartuz. Adierazi ikasleei garrantzi bera dutela hiru unek eta jarrerazko eduki hauek behagarriak izango direla prozesu guztietan. Ondoren, esperimenturi ekingo diogu. Bukatzean, esperimentuz eta ateratako ondorioez hitz egiteko elkarrizketa sortuko dugu.

Bonbillan adierazi bezala, proteinek gorputzean duten funtzioa eta proteinek dituzten elikagaiak ezagutu ostean, proiekturako elikagai hauekin egin daitezkeen pintxo edo edarien inguruan hitz egin dezakezue eta ideia ugari ostean, hainbat erabaki hartu eta praktikan jarri ere.

## **20. Elikagai motak: energetikoak (eskema osatzen)**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 22. eta 23. or./10. lan-koaderno, 17. eta 18. or.*

Elikagai moten eskemaren osaketarekin jarraitzeko asmoz, bigarren atala lantzeari ekingo diogu, alegia, elikagai energetikoei buruzko informazioa aztertu eta garrantzitsuena eskema bidez antolatzeari. Ikasleek bakarka, liburuko testua irakurri eta lan-koadernoko jardura osatzeari ekingo diote. Jardura honen lehenengo orrialdean testuan irakurritakoaren inguruko informazio zehatza bilatzeko eskatzen zaio ikasleari. Informazio horrek testuaren edukia (ideia nagusiak) zein den jabetzen lagunduko dio, bigarren orrialdean egin beharreko lana errazago egin dezan, alegia, eduki horiek (oinarrizko kontzeptuak) eskema gisa antolatu.

Jarduera talde handian berrikusi eta zuzendu ostean, elikagai motei buruzko eskema osatzeko, ikasleek elikagai energetikoei dagokien eskema euren koadernoan kopiatuko dute. Gogoan izan, eskema horretan orain arte jasotakoa, ikasleek ahoz ere adierazten jakin behar dutela.

## **21. Esperimentua: karbohidratoak**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 24. or.*

Hainbat elikagai aztertuko ditugu, karbohidratoak dituzten jakiteko. Horretarako, ikasleak talde txikitik antolatuko dira, esperimentua planifikatu (materialak bildu, ardurak banatu...) eta burutzeko. Bukatzean, esperientziaz (talde lana, norberaren lana, sortutako zailtasunak...) eta ateratako ondorioez hitz egiteko elkarrizketa sortuko dugu.

Bonbillan zuen proiektuan zizka-mizka eta azkenburukoren bat ere egitea proposatzen zaizue. Har ezazue tarte bat horien inguruan hitz egiteko, informazio iturrietan horien inguruko errezetak bilatzeko, eta aukeratu bat edo beste gelan osatzeko. Azkenburukoei dagokienez, bila ezazue gelan egiteko modukoren bat, alegia, laberik

edo surik erabiltzea eskatzen ez duen horietakoren bat eta egin ezazue. Horrez gain, anima itzazue ikasleak etxean etxekoen laguntzaz, asteburuan, besteren bat egiten, agian labea edo sua erabiltzea eskatzen duen horietakoren bat. Argazkia atera diezaiokete eta errezeta ere idatzita ekarri, eta animatzen badira, igandean egin eta astelehenean gelara ere ekar dezakete denok probatzeko. Errezeta eta argazkia, gelako bildumarako gorde ditzakezue!

## 22. The fat test (Esperimentua ingelesez: koipeak)

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikasleen liburua, 25. or.*

*- Jarduera honetan elikagaien koipe edukiari buruzko esperimentu bat egingo dugu. Hainbat Janari motaren gramo bat zatar paperean jarri eta denbora jakin batez bertan utzi ondoren, sortuko den orbaina neurtu eta emaitzak laukidun grafikoetan jarriko ditugu, janarien arteko erkaketa egin ahal izateko.*

### Procedure:

Link to what they have been working on before.

Comment on the fact that they have been looking at different nutrients in food.

- *What do you need to keep you healthy?* Proteins, carbohydrates, vitamins and minerals, fats.

Tell them we are going to look at fat.

- *Where does fat come from?* Animal and plant fats.

- *What does it look like?* Sometimes white attached to meat. Sometimes transparent and greasy on their fingers after touching certain foods.

Sometimes liquid; oil. Sometimes solid; butter, margarine.

Ask them why they think it is worthwhile spending our time looking at the fat in different foods. We know that people who want to stay healthy and full of energy don't eat too much fatty food. Some fat is good for us to eat, but when we eat too much fat, the body can't use it all and it turns the extra into body fat. Some body fat is good, but when the body starts making too much fat it can become "overweight." That's not good for the body.

- *How do you know which foods are high in fat?* (Look at product labels. Look at the food and see if it looks greasy.)

- *How could you compare different foods to see which has the most fat?* (Perform an experiment to see the results)

### Experiment:

- You will need:

- Pieces of brown paper cut 13 cm by 13 cm

- Examples of fatty and non fatty foods (mortadella, chorizo, ham, cheese, crisps, cookies, and butter would work well for the fatty foods. Bread, crackers, rice, fruits, vegetables, and low-fat yogurt)

- Scales

- Spoons

- Chart

### Steps:

- Hold up a piece of a brown paper, cut 13 cm × 13 cm.
- Ask what will happen if we put a piece of greasy food on it. It will leave a grease spot as the fat moves through the paper it darkens the fibers.
- Ask how we can compare the fat content of different foods. Suggest putting different foods on brown paper and then comparing the size of the grease spots left behind.
- Ask how we can make sure the test is fair to all of the foods? What if Arantza puts more food on her paper than Alizia, and it leaves a bigger grease spot? Does it really have more grease? What if Alex spreads his food out on the paper and Yon piles his high? What if Iñaki examines his results in one day and Iñigo examines his results after two days? Is it fair?
- Remind the pupils that in order to perform a good experiment they need to hold the variables not being tested constant. That is, everything except the one thing being tested needs to stay the same. Because we want to compare how much fat there is in different foods, we need to use different foods. Everything else in the test will stay the same. we need to use the same amount of food each time and put it on the paper the same way; leave it on the paper the same amount of time; and use the same kind of paper for each food sample.
- If the class is before break, you can ask the pupils to donate a bit of their eleveses “for science”. Make sure you also have some fatty foods and low-fat foods in the samples. E.g. mortadella, chorizo, ham, cheese, crisps, cookies, and butter would work well for the fatty foods. Bread, crackers, rice, fruits, vegetables, and low-fat yogurt would work well for the low-fat/non-fat foods.
- Get the class into pairs and ask each pair to choose one of the food samples.
- Ask them to draw a circle, 6 cm in diameter, on a 13 cm square of brown paper. Show them an example. You can cut out cardboard templates ahead of time for them to use as a guide to make the job quick and easy.
- Get the pupils to weigh 1 g of the food using the scales, so everyone is comparing the same amount of food. Show them how to do it. Place the prepared paper on one side of the scale and a blank square of brown paper on the other side to balance. Next, place a gram mass on one side and added bits of food on the other side, inside the circle, until the balance is level. Remove the test sample and paper from the scale and pulverize the food with the back of a spoon to completely cover the inside of the circle so that each food is spread on the paper in the same way.
- Ask the pupils to label their food samples and leave them on the science table for the weekend so the water in the food could evaporate. Water also darkens the fibers of the brown paper and might be mistaken for grease, and a fat stain/mark will be left behind, as it doesn't evaporate.
- Ask the pupils to predict which foods will leave the biggest grease stain.
- Remind the pupils of their experiment to compare the different amount of fat in foods. This information is going to help them make healthy decisions about how much and what kinds of food to eat for a healthy diet.
- Ask the pupils how they are going to compare the grease stains.
- You can use a centimeter grid copied onto a transparency sheet to determine the area of each grease stain. Give an example on the board or OHP. And show students how to write the answer in centimeters squared (e.g., 36 cm<sup>2</sup>).
- Tell the pairs to work out the area of a stain in square centimeters. After scraping off the excess food from their piece of brown paper, they place the transparency grid on top of the paper and count the number of squares covering the stain. Decide that if at least



half of the square had grease in it, it would be counted. Put a dot on each square to count the squares.

- As they finish get them to transfer their information onto a large chart for all to see. Model the language to give the results. E.g., “One gram of crisps left a grease stain ... cm<sup>2</sup>”.
- Finish by ranking the food by size of grease stain, e.g. by numbering foods from 1 to 12, with 12 being the food that left no grease spot on the paper.
- Finally ask the pupils what they have learned from this experiment.

### **23. Energia kontuak: elkarrizketa eta elkartasun jolasak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 26. or.*

Talde handian elkarrizketa sortuko dugu, elika-ohiturez hitz egiteko, zenbat otordu egiten ditugun egunean zehar, kalitatezkoak ote diren, eguneko zein unetan izaten dugun goserik handiena, egunak eskaintzen dizkigun erronka eta zereginei aurre egiteko behar beste energia dugun... Elkarrizketa honek gure elikatze ohiturei erreparatzen eta haien kontzientzia hartzen lagunduko digu.

Elkarrizketa bukatu ostean, jolasteari ekingo diogu, gure energia-maila neurtzeko aitzakiarekin, gorputzaren alderdi motorra eta kognitiboa lantzeko aukera izango dugu.

“Zaindu isatsa” jolasaren bidez, hain zuzen ere, gorputzeko atal ezberdinen mugimendu, arreta eta estrategien aplikazioan trebatuko gara. Jolasa martxan jartzeko, betiko urratsak jarraituko ditugu eta bukatzean elkarrizketa sortuko dugu esperientziatzeko hitz egiteko eta sentimenduak azaltzeko elkarri.

- *Gustuko izan al duzu jolasa? Nola sentitu zara jolasten ari zinen bitartean? Urduri, tentsioaz, emozioz bete, isats kopuruen arabera pozik edo triste...*
- *Zein izan da zure gerrian izan duzun isats kopururik handiena? Eta txikiena?*
- *Ba al dago estrategia berezirik isatsik ez galtzeko? Eta isats ugari harrapatzeko? - Zein izan da zure taktika, zeure isatsa defendatzea, isatsak itsu-itsuan lortzea zeurea zainduz edo behar beste zaindu gabe, bi lagun arteko lehia aprobetxatzea isatsak zeureganatzeko?*
- *Zein izan da izan duzun zailtasunik nagusiena jolasteko orduan? Nola hobetuko zenuke zure jarduna?*

Gure kulturaren jakiak erabiliz asmatutako hainbat jolas ditugu eta horiei ere toki egingo diegu, ezagutzen ditugunak aipatu eta jolasteari ekinez. Horien artean kokatzen dugu, liburuan aurkeztutako “patata-dantza” ere. Jolas honen bidez, besteak beste, arreta, mugimendua eta koordinazioa lantzen ditugu, irakasleak egindako aldaketa eta osaketan arabera, eduki berriak lantzeko aukera izanik. Patata-dantzan jolasteko, musika-ekipoa, mota eta erritmo ezberdineko musikak eta dantzari bikote bakoitzeko patata bat behar ditugu. Jolasaren helburua, bikoteka, elkarri heldu gabe eta bekokiaren artean eutsitako patata lurrera jausi gabe dantza egitea da. Irakasle, jolas ezazue behin baino gehiagotan jolas honetan eta bakoitzean txerta ezazu barianteren bat jolasa dibertigarriago izan dadin, alegia: elkarri heldu gabeko dantza, elkarri helduta dantzatu, zutik egotetik makurtu eta berriro altxatu, erritmo motelak eta biziak tartekatu, bikoteak aldatu musika gelditzen denean eta hasten denerako berriro dantzarako prest izan... Bariante honek patatarekin geratzeko den laguna alde aurretik zein izango den adostea

eskatuko luke, edo agian ez, hartara musika gelditzean, adien dagoen lagunak patata hartu eta lagun edo bikote berriaren bila joan daiteke. Edozein dela ere jolasean egindako aldaketa adostu eta argitu ezazue jolasten hasi aurretik. Jolasa bukatzean, egin ezazue elkarriketa esperientziaz hitz egiteko.

Hor behean, proposatutako jolasak, gure tradizioan hainbat janari erabiliz (sagarrak, laranjak edota txorizoa adibidez) egin ohi izan direnak dira. Jolas hauek, nagusiki, lehia oinarrituta daude. Gure ikasleak hezkidetzan eta elkartasunean hezi nahi baditugu ere, bizitzan hainbatetan aurkituko dira irabazi/galdu, edo antzeko egoeretan eta horiek onartzen eta asimilatzen ere irakatsi behar diegu. Hori dela eta, mota honetako jolasei lekua egin diegu unitate honetan. Beraz, hor behean proposatzen zaizkizuenak nahiz etxean galdetuaz jasotakoetara jolas zaitezten animatzen zaituztegu.

- *Askotan entzungo zenuten janariarekin ez dela jolasten, ezta? Ba, ez da egia osoa...*

\* Sagarra: Bikoteka, beste bikote batzuekin lehiatu sagarra nork lehenago jan. Sagarrak, horizontalki dagoen makila edo soka bati soka baten bidez lotuta eta zintzilik egongo dira. Jolaskideek eskuak bizkarraldean izango dituzte eta ahoa soilik erabili ahal izango dute sagarra jateko.

\* Txorizo xerra: Txorizo xerra begi gainean jarri eta ahora lehenago nork eramane eta jan. Ezin dira eskuak erabili, aurpegia besterik ezin da mugitu txorizo xerra ahora eramateko. Jolas hau egitean ikasleek keinu politak eta xelebreak egiten dituztenez, zuen "Hemen edo han, gure Txanelan!" jartzeko argazki politak atera ditzakezue, aprobeitza ezazue aukera!

\* Arrautzak eta koilarak: Lasterketa jolasa da. Luzera jakin bat aukeratu (irteera-helmuga) jolastokian eta bakarkako jolasa izan daiteke edota talde txikitan antolatuta erreleboak eginez. Koilara gainean arrautza jarri, koilararen kirtena ahoan eta eskuak atzean dituztela helmugara arrautzarik bota gabe nor iritsi lehenago da kontua.

## **24. Patata pintxoak**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 26. or./Irakurgaiak 5, 96. or.*

Tarte bat emango diegu ikasleei irakurgaietako testua bakarka irakur dezaten. Ondoren, talde txikietan, adostutako egun jakin batean, irakurgaietako patata-pintxoak eta baita talde bakoitzak erabakitzen duen patataz egindako beste pintxoren bat ere, gelan prestatu ahal izateko egin beharreko lana planifikatuko dute (osagaiak eta materialak nork ekarri, ardurak banatu...) irakaslearen laguntzarik gabe. Adostutako egunean (proiektua gauzatzeko egunean ere izan daiteke), talde bakoitzak bere bi pintxoak prestatzeari ekingo dio. Horren ostean, talde handian, esperientziaren inguruan hitz egiteko elkarriketa martxan jarriko dugu, talde lana baloratzeko eta baita pintxoak, hauen aurkezpena, etab. egiteko ere.

## 25. Liburu artean

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 27. or.*

Unitate honetan, irakur-teknikak landu eta ikasleren batengan irakurtzeko gogoia pizteko asmo, *margarita* pizza aitzakia, *Garmendia eta Fannyren sekretua*, Kirmen Uribe/Mikel Valverde (ELKAR, Garmendia 3), fikziozko abentura komikia aurkezten dizuegu. Komiki honetaz gain, pertsonaia edo talde abenturetan oinarritzen diren eta liburuan bertan aipatzen diren beste batzuk ere (Asterix eta Obelix, Bostak, Xola, Harry Potter, Tintin, Banbulo, Gabai...) eskuratzea eta gelan ikasleen eskura jartzea proposatzen dizuegu.

Talde handian jarduera honek proposatzen diguna egiteari ekingo diogu. Gelako edo ikastetxeko liburutegiak arakatzearaz gain, ikasleek etxetik ere ekar ditzakete mota honetako komikiak eta euren artean trukeak egin, bat edo beste irakurtzeko.

Bestetik, irakur liburuan aipatzen den pizza aitzakia, pizzak zer diren eta nola prestatzen diren ere aztertu dezakezue, zuen proiekturako gaia ere izan baitaiteke!

## 26. Elikagai erregulatzaileak

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde handian/Binaka/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 28. eta 29. or./10. lan-koaderno, 19. orrialde, 21.era/Irakurgaiak 5, 97. eta 98. or.*

Ikasleek bakarka, nahiz binaka, irakasleak horrela estimatzen duen kasuetan, elikagai erregulatzaileei buruzko testua irakurri eta lan-koadernoko jarduera osatzeari ekingo diote. Jarduera bukatu ahala, ikasleek tarte bat hartuko dute irakurgaietan dagoen “*Bitaminen aurkikuntza*” testua irakurtzeko. Bukatzean, talde handian, elikagai erregulatzaileei buruzko jarduera berrikusi (irakurri eta irakaslearen azalpenekin hornituz) eta zuzentzeari ekingo diogu (erantzunak justifikatu, irakurritako testuen inguruan dagiguna aipatu...).

Pare bat ohar:

\*Lan-koadernoko jarduerari dagokionez, testuaren edukia aztertzeke hainbat galdera daude, batzuen erantzunak literalki aurkitu daitezke liburuan bertan, beste batzuenak ondorioztatu egin behar dira eta izan daitezke baten bat liburuan erantzunik aurkituko ez dugunik ere. Adieraz iezaiezue hau ikasleei, informazio zehatzaren bilaketa zorrotza egin dezaten, bakarka, nahiz binaka, erantzuna aurkitu ez duten galderen inguruan eztabaidatzeko.

\*Urari dagokionez, jakina da gure gorputzak egunean zehar pare bat litro ur, gutxi gora behera, behar dituela bere funtzioak betetzeko. Ur kopuru hori guztia, edaten dugun ura eta egunean zehar hartzen ditugun elikagaietatik eskuratzen du, beraz, egarri garenean edaten dugunarekin eta jaten dugunetik lortzen duenarekin gure gorputzak ur kopuru nahikoa izaten du normalean. Edozein dela ere arrazoia (ariketa fisiko asko, tenperatura altuegiak, beherakoa...) gure gorputzak ur kopuru handia galtzen badu, normalean baino gehiago edatea eskatuko digu egarriaren bidez eta horri kasu eginez edango dugu behar dugun ur kopurua. Horrelako kasu bereziak ez direnean, ur larregirik edatea ez da komenigarria izaten, adibidez, gorputzak bere funtzioak betetzeko jariatzen dituen hainbat urin uretan disolbatzean hainbat prozesu moteltzen dituelako eta hainbat organori behar baino lan gehiago eginarazten dielako.

Bestetik, gogoan izan, atal honekin elikagai motei dagokion eskema osoa osatu dutela, eskema hori ikasleek ahoz adierazten jakin behar dutenez, eman iezaiezue denbora binaka nahiz hirunaka horretan treba daitezen.

## **27. Freskagarri osasuntsuak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 29. or./Irakurgaiak 5, 99. or.*

Elikagaiak aztertu eta hainbat janari errezeta ezagutu eta prestatu baditugu ere, horiek busti eta irensten lagunduko diguten edariei ere toki egin behar diegu. Talde handian, irakurgaietako bi freskagarrien errezetak irakurri, eta horiek, eta aurkitu edo ezagutzen ditugun beste batzuk prestatzeko planifikazio lana martxan jartzeari ekingo diogu. Talde bakoitzak edari jakin bat presta dezake eta denon artean adostu proiekturako zein prestatu. Gogoan izan, errezeta bilduma osatzeko argazkiak atera behar dituzuela, beraz, apain itzazue dotore-dotore edari freskagarri hauek (limoi zatitxoekin, lastotxoak erabiliz...).

Ez ahaztu, gure ikasleen osasunaren izenean, freskagarri osasuntsuak prestatzearen alde egin behar dugula, hau da, osasuntsuak diren lehengaiak (frutak, barazkiak eta ura) konbinatuz egindako edariak prestatzea komeni zaigula, aho sabairako gozoak direnak eta gure ikasle askorentzat zeharo ezezagunak.

Aukera polita litzateke hau, freskagarri komertzialen inguruan ikasleekin hitz egiteko. Freskagarri hauek, kaloria ugari izaten dituzte eta gorputzak beharrezko dituen mantenugai gutxi (batzuk batere ez). Hauek eta baita litxarkeri komertzial ugari ere, bete egiten dute eta gure gorputzak behar dituen mantenugaiak dituzten elikagaiak jateko gogoak kendu. Beraz, komenigarria da horiek egunero ez jatea/edatea.

## **28. Esperimentua: jaki ugari ura dute**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 30. or.*

Janari ugari ura dutela irakurri dugu elikagai erregulatuzaileen testuan, ogia izan daiteke horren adibideetako bat. Hori horrela dela frogatzeko, talde txikitan, proposatutako esperimentua egiteari ekingo diote ikasleek. Bukatzean esperientziaz hitz egingo dugu talde handian.

## **29. Artelanak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 31. or.*

Artelan hauetan oinarriturik, hainbat plastikako lan proposatuko ditugu.

- *Konposizioa*

Natura hilak aitzakia, koadroetako konposizioa aztertuko dugu.

Ariketa honekin elementuak espazioan nola kokatu daitezken aztertuko dugu.

Hasteko, hainbat koloretako kartoi meheetan oinarritzko forma geometrikoen irudiak marraztu eta moztuko ditugu.

Forma batzuk lauki eta laukizuzenak izango dira eta tamainaz handienak izan daitezke, bertikaltasuna irudikatzen erabiliko ditugu. Beste batzuk, aldiz, hirukiak, borobilak, borobil erdiak, etab. izango dira eta horizontaltasuna adieraziko dute.

Elementu horiekin, ikasle bakoitzak bere konposizioa "aurkitu" beharko du eta hainbat proba egitera bultzatu beharko genituzke gustukoena aurkitu arte. Konposizioan kontutan eduki beharko genuke forma bertikal eta horizontalen masen arteko oreka eta baita beraien arteko kontrastea ere.

Bestalde, espazioan (kasu honetan espazio lauan) elementu horiek nola kokatu aztertu beharko dugu eta perspektibaren hastapenak landu: aurrean dauden elementuak orrian beherago ipiniko ditugu atzean daudenak baino. Gainera aurrekoek estali egingo dituzte, zati batean besterik ez bada ere, azken horiek.

Hondoa ere bi espaziotan bana daiteke behekoa oinarri moduan erabiliz, non aipaturiko elementuak kokatuta egongo diren.

#### *- Pegarra*

Aldez aurretik, eta paper zahar batean, bozeto bat egingo dute ikasleek, beren pegarra gutxi gorabehera nolakoa izatea nahi duten jakiteko. Artelanetan azaltzen diren oinarritu daitezke edota beste hainbat eredutan.

Pegar gehienak forma simetrikoak direnez, komenigarria da marrazkia egiten hasi aurretik simetriari buruz bi hitz esatea, aurre-egutzak martxan jarritz, kontzeptu hori argitzeko.

Pegarraren marrazkia kartoi mehean egiten hasteko haren ardatz simetrikoa izango dena marrazten hasiko ginateke, kartoi mehea modu bertikalean hartuz eta aipaturiko marra bere erdian ipiniz.

Bozetoan oinarrituz, pegarraren elementu desberdinak (ahoa, lepoa, sabela, oina) lerro zuzenen bidez marrazten hasiko gara erregelak erabiliz. Beti ere kontutan izan ardatz simetrikotik alde batera egindako beste aldean egin beharko dela distantzi berdinak mantenduz. Modu horretan enkaxatuta edukiko genuke pegarraren forma.

Ondoren pegarrari forma esferikoa emango zaio eta horretarako angeluak, lerro zuzenen elkartzeneak, ezabatuko genituzke lerro kurbatuak marraztuz.

Marrazkiari bukaera emateko pegarra dekoratuko dugu. Formaren leku garrantzitsuetan (lepoa, sabela...) bi lerro kurbatu paralelo egin eta bertan modulazioak erabiliz apaingarriak marraztuko ditugu. Bolumena hobeto adierazteko, itzalen bidez egin daiteke.

Buztinarekin animatuz gero, pegar horiek bolumenean eraiki ditzakete. Horretarako, Txorizoen teknika erabil dezakezue.

#### *- Objektu, elementuen ehundurak*

Edozein objektu plastikoki definitzerakoan, adierazterakoan, garrantzi handiko kontzeptua da ehundura, alegia, nolakoa den bere azala. Batzuetan objektua irudikatzen ezinbestekoa suertatzen den elementu bihurtzen da, maiz forma adieraztearekin nahikoa ez baita izaten.

Ariketa hauen helburua kontzeptu horren inguruan hausnartu ondoren, hizkuntza plastikoan ehunduraren garrantziaz jabetzea eta adierazpen plastikoetan bere erabilera bultzatzea izango litzateke.

Has gaituzke ehundura desberdinetako materialak biltzen (horma-paperen muestrarioak, oihalenak, kartoi desberdinak, plastikoak, lizpaperak, espartzuak...) eta hainbat formatan moztu ondoren kartoi mehe batean itsatsi konposizio desberdinak sortuz.

Oinarrizko forma bat marraztu (lauki bat, borobil bat...) eta ehundura desberdinak marraztuz zein lehengaiz eginga dagoen azaldu. Egurrezkoa balitz nola adierazi, edo burdinazkoa edo lastozkoa, ispilua balitz, kristala, harria, harea, etab.

Zuzeneko behaketa lantzeko ikasleak ekar ditzake etxetik oihal puska bat, paper zimurtua, fruta, intxaurra, harriren bat... Azken batean ehundura desberdina duten hainbat elementu, bereziki natura hiletan erabiltzen direnak. Horiekin banan-banan edo, mahai gainean ipini eta elementuaren forma marraztu ondoren objektuaren ehundura adierazteari ekingo lioke. Ariketa hauek zuri beltzean egin daitezke ehundurak zehatzago lantzeko nahiz eta bukaeran horrela nahi izanez gero kolore pixka bat gehitu.

- *Natura hila*

Aurretik landutako ariketetan oinarriturik, ikasle bakoitzak bere natura hila egingo luke elementu horiek integratuz. Orri batean bozetoa egin ondoren kartoi mehe handi samar batera (DIN A-3) pasa daiteke eginikoari bukaera ona emanaz.

Margotzerakoan, ezkoak edo tenperak, ur-margo moduan nahi izanez gero, erabil daitezke.

### **30. Dieta orekatua**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 32. or.*

Ikasleek bakarka, dieta orekatuaren inguruko jarduera irakurri eta eskatzen zaien informazioa koadernoan jasoko dute. Hona, era batera edo bestera ikasleek euren koadernoan jaso eta ikasi beharreko informazioa:

Dieta: egun batean hartzen dugun elikagai solido eta likidoen multzoa da.

Dieta oparoa izan dadin, izan behar du: askotako elikagaiak osatua norberaren adina eta jarduerari dagokion kopuruan.

Gero, bost laguneko taldetan, elkarrizketa egingo dute galdera honi erantzuteko eta dituzten aurre-ezagutzetatik abiatuta euren erantzuna justifikatzeko.

- *Zure dieta orekatua dela iruditzen zaizu? Zergatik?*

bukatzean, talde bakoitzeko bozeramaleak hitz egindakoaren berri emango dio talde handiari, honelako egiturak erabiliaz:

*Gehienok uste dugu..., Denok... inork ere ez..., Bat esan eta berak ere ez du..., Lagun bat izan ezik beste guztiok..., Denok edo gehienok bat gatoz ideia honetan..., Ideia horri dagokionez, denok ez dugu iritzi bera, gutariko batzuk... uste dugu... besteek berriz...*

### **31. Elikadura arazoak (bulimia, anorexia eta gehiegizko loditasuna), autoestimua, pentsamendu baikorra eta sentimenduen adierazpena**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakaslearen liburua, 32. orrialdetik 35.era*

#### **Gurasoei gutuna**



Kaixo Familia:

Esku artean dugun unitate didaktiko honetan, “*Eta horrela bizitzen gara...*”, gure organismoa eta aparatuak, elikagai motak eta digestio prozesua aztertzeaz gain, garrantzi handia eman nahi diogu gaztetxoan ematen diren elikadura arazoan (anorexia, bulimia, gehiegizko loditasuna) prebentzio lanari.

Arazo hauen aurrean, familiaren eta ikastolaren arteko elkarlana oso garrantzitsua dela uste dugu eta, zuek gela barruan egiten ari garenaren jakitun izatea, ezinbestekoa. Zertan ari garen jakinez, zuen seme-alabekin gaiaren inguruan hitz egin dezakezue, beti ere beren mintzatzeko nahi eta uneak errespetatuz eta zuen arteko komunikazioa mantendu eta jarraitzeari bide eginez.

Arazo hauen inguruko oinarritzko informazioa ematen badugu ere, gure lanaren helburua jarrera baikorrak, autoestimuzkoak eta errespetuzkoak garatzea litzateke. Eta jarrera horiek indartzeko, sentimenduen adierazpena ere landuko dugu.

Talde handian, irakaslearen azalpenak tartekatuz eta bere gidaritzapean, sentsibilitate handiz gai hau lantzeari ekingo diogu, informazioa irakurriz eta argituz, horren inguruko gure esperientziak eta sentimenduak konpartituz, errespetu handiz, elkarrizketak, jolasak eta talde dinamikak eginaz.

Proposatutakoa zuen interesekoa izango delakoan eta gure elkarlana indartzeko baliagarria izango delakoan.

Hurren arte.

*Irakasleak*

*Gutun horrek hiru zati ditu: lehena, gutuna bera, bigarrena, aholku batzuen zerrenda eta hirugarrena, bi jardueren deskripzio laburtua. Zuek ikusi guztia bidaliko duzuen edota aukeratu, zein zati iruditzen zai(zki)zuen egokiena(k).*

Edozein direla ere arrazoiak, ondo ez elikatzearen ondorioz sortutako gaixotasunak ugaritzen ari omen dira gure artean. Hori dela eta, elikadura arazoei toki egin zaie unitate honetan, hainbat gaixotasunen berri eman eta hauei aurre egiteko aukerako proposamenak luzatuz.

Talde handian, irakaslearen azalpenak tartekatuz eta bere gidaritzapean, sentsibilitate handiz gai hau lantzeari ekingo diogu, informazioa irakurriz eta argituz, horren inguruko gure esperientziak eta sentimenduak konpartituz, errespetu handiz, elkarrizketa eta jolasak eginaz. Jarduera honetan auto-estimua eta pentsamendu baikorra balore gisa lantzeaz gain, sentimenduak azaleratzen ikasteko hainbat saiakera ere egingo ditugu. Beraz, jarrai ezazue orrialde hauetan proposatzen zaizuen eta eskaini iezaiozue ariketa edo jarduera bakoitzari, dinamikaren arabera, egoki irizten diozuen denbora.

- Oharra: Gai hauek gelan eta etxean ere lantzekoak direnez, hor duzue gurasoek kontsulta dezaten interesgarria izan daitekeen helbidea: <http://www.hiru.com>. Informazioa euskaraz eta gazteleraz dago, gurasoei zuzendutakoa da eta hainbat aholku eskaintzen ditu.

#### *-Elkartasun jolasa*

Betiko urratsak jarraituz elkartasunez jolasteari ekingo diogu, hartu-emaneko jolas bat eginez. Jolas honen bidez, norberaren eta besteen alderdi onak indartzen ari gara, autoestimua landu eta sendotzeko jolasen artean kokatuko genuke.

Eser zaitezte borobilean elkarri eskutik helduta. Ezkerreko lagunaren ezaugarri on bat pentsatu ostean, zeure ezaugarri on bat pentsa ezazu. Txandaka, ezkerreko lagunari begietara begiratzuz bere ezaugarri on hori, gustuko duzuna, adieraz iezaiozu, zer esanez, “nik zugandik ..... hartuko dut/dituz oso gustukoa(k) dudalako/ditudalako”. Ondoren, eskuineko lagunari begietara begiratu eta zeure buruari buruz gustukoa duzun ezaugarria adieraz iezaiozu: “nik zuri nire ..... emango dizut/dizkizut ... (honetan) lagunduko dizulako/erabil dezazun” Eskuinekoak, lagunak esandakoagatik esker ona adieraziko dio “Eskerrik asko” esanez.

#### *- Sentimenduen adierazpenean trebatzeko elkartasun jolasa*

Sentimenduek barne-egoera afektiboaren berri ematen digute, poza, gorrotoa, amorrua, tristura, lotsa, maitasuna, urduritasuna, beldurra, kezka... Zoriontsu bizi nahi badugu, sentimenduak estali beharrean (gero beste itxura batekin edo behar ez diren unetan ateratzen baitira, behar ez denarekin), horiek azaleratzen saiatu behar dugu. Eta hori da hain zuzen ere jolas honen bidez egingo duguna, sentimenduak azaleratu eta horien adierazpenean trebatu.

Horretarako, lehenik eta behin, lagun artean, hitz egin ezazu.

*- Zuk ba al dakizu sentimenduak azaleratzen? Zein sentimendu azaleratzen duzu erraz? Zein ez? Zure ustez, zergatik gertatzen zaizu hori? Inoiz saiatu al zara sentimenduren bat estaltzen? Zergatik? Zure ustez, zer gertatuko litzateke estali beharrean adieraziko bazenu? Eta egoera horri aurre egiteko gai ikusten al duzu zure burua? Saiatu al zara inoiz?*

Gelan zehar oinez ibiliko zarete eta irakasleak sentimendu bat esan ahala, hura barneratu, bizitu eta dramatizatuko duzue. Bukatzean, elkarrizketa egingo duzue, honako galdera hauei buruz.



- *Gustuko izan al duzu jolasa? Zergatik?*
- *Zer sentimendu kostatu zaizu adieraztea?*
- *Zure ustez, zergatik gertatu zaizu hori?*

Sentimenduak azalertzeko beste era bat ere bada, horiei buruz norbaitekin hitz egitea, sentimenduak konpartitzea. Unitate honek irauten duen bitartean, goizero, beste edozein ekintzatan hasi aurretik, eta talde txikitan, zuen sentimenduak elkarri kontatuko dizkiozue, elkarri errespetuz entzunez.

### **Autoestimua eta sentimenduen adierazpena lantzeko jarduera gehiago:**

Hauek dira gure ikasleengan eta seme alabengan indartu behar ditugun alderdiak:

- Autoestimua eta pentsamendu baikorra bultzatu.
- Sentimenduak ezagutu eta adierazten ikasi.
- Lagun guztiok ditugu gaitasun onak eta alderdi txarren bat.
- Gehiegizko loditasunari txantxarik edo isekarik ez egin.
- Ikasleei gorputza, mimatzen, zaintzen eta onartzen lagundu.
- Familiako bazkariak egiten saiatu eta tarte horiek gure maitasun guztia emateko aprobetxatu.
- Argaltasuna arrakasta izateko gako gisa ulertzen duten moda guztiei uko egin.
- Giza balioak izatea aldizkarietan eta telebistan ikusten ditugun gorputz bikain guzti horiek baino askoz ere garrantzitsuagoa dela irakatsi.

#### *- Autoestimua lantzeko*

Gelan egoera ezberdinak aurkeztu eta talde txikietan horiei buruz hitz egin ostean, konponbidea ematen saiatu. Adibidez: beti bere gorputzari begira dagon lagun bat kezkatua ikusten duzue, potoloa ikusten du bere burua, tristura handia ematen dio horrek. Askari handi batera gonbidatu duzue baina ez du etorri nahi. Arropa jakin bat erabili nahi ez duen lagun bat duzu, lodiago ematen duelako arropa horrekin, ez du jantzi nahi.

Egunero, bai gure buruari, baita beste kide bati, zerbait ona esango diogu. Gure gizartean beti alderdi txarrak aipatu eta azpimarratzen dira, onak jakintzat emanaz. Guk horiek azpimarratuko ditugu. Gainera, goizero, aurreko egunean gertatutako gauza on bat eta gauza txar bat aipatutako ditugu taldean.

#### *- Gurasoek seme alabekin autoestimua lantzeko*

- Seme-alaben gauza onak ikusi eta esan. Ez da komeni exageratzea. Den moduan onartu behar da.
- Gauza berriak egitera animatu behar dugu gure konfiantza osoa adieraziz.
- Gatazka, arazo eta kezkei aurre egiteko aukera eman behar zaio, geuk konponbidea eman beharrean, bidean lagundu.
- Zerbait ondo ez bada ateratzen, arazoa non dagoen bilatzen lagundu behar zaio, akatsak erlatibizatzen, onartzen eta asimilatzen.
- Bere ekintzak kritikatu behar dira eta sekula ez bera pertsona bezala. Hau da “hau txarto egin duzu” esan dakioke baina inolaz ere ez “txarra zara”.
- Maitatuta sentitu behar da, bere lorpen eta jokabidetik harago.
- Sentimenduen adierazpena baimendu behar da, triste dagoenean negar egin behar du, haserre dagoenean haserretu etab. Inoiz ez atera gauzak bere onetik, baina sentimenduak adierazi, ez dira erreprimitu behar.

- *Sentimenduen adierazpena lantzeko*

- Ikasleek normalean, sarrien, sentitzen duten sentimendua adierazi beharko dute. Margotu egingo ditugu, kolorea eman eta horien inguruan hitz egin, zerk sortarazten dituen, zergatik...

- Bikoteka jarriko gara. Bikoteari begiak zapi batekin estaliko dizkiogu. Batek gorputz eta aurpegi keinuz, sentimendu bat adieraziko du, besteak ukituz, zein sentimendu den asmatu beharko du eta haren postura bera imitatzen saiatuko beharko da. Zapia kendu eta postura bera lortu duen begiratuko dugu.

- Ikasleek binaka jarri eta kideari esan beharko dio:

norberaren fisikoaren bi ezaugarri on (ilea, begiak...)

norberaren pertsonalitatearen bi ezaugarri on (zintzoa, leiala...)

norberaren gaitasun on bat (kirolaria, musikaria, matematiketan arina...)

- Orri txuri batean hurrengo hau apuntatu beharko du ikasle bakoitzak:

ondo egiten dituen bi gauza

orain dela gutxi izandako lorpen handi bat

lorpen horren ondorioz esan ez zidaten baina entzutea atsegin izango zukeen

esaldi polit bat

bikoteka aurretik idatzitakoa lagunari adierazi

- Imajina ezazu nagusia zarela eta bizitzeko hilabete besterik ez duzula esan berri dizutela. Idatz ezazu orrialde batean, egingo zenituzkeen gauzen zerrenda. Gero taldeari adieraz iezaiozu. Orain pentsa ezazu bizirik zaudela, zeinen ondo! Eta zergatik ez zara bada bizirik zauden ilusio horrekin horiek betetzen saiatzen? Ekin bada!

### 32. Entzunaldia

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa, 26. pista*

Unitate honetan, Pello Ramirez euskal musikariaren *Haize oihalak* diskoko "Gartxot" izeneko entzunaldia landuko dugu. Konpositoreen txokoa martxan jartzeko ikasleei euskal musikari honi buruzko informazio bilatzeko esango diegu, nor den, zein musika mota egiten duen, zenbat disko dituen etab. Bilatutako informazioa elkarrekin konpartitu ostean, musikariari buruzko informazioa eta ahal bada, haren argazkia eta izena ere gure konpositoreen txokoan jarriko dugu.

Ondoren, abesti musikatu hau entzuteari ekingo diogu, jarraian musika motari buruz hitz egiteko. Zein instrumentu entzun ditugun (pianoa, akordeoia, biolontxelo), gustuko ditugun, zein musika mota den entzundakoa, noiz entzungo genukeen horrelako musika, zertarako erabiliko genukeen...

Aurreko jardueran sentimenduen adierazpena lantzeari ekin diozuenez, aukera polita liteke hau, musika honek eurengan sortu edo piztu dituen sentimenduez hitz egiteko eta sentimendu hauen inguruan esaldi edo olerkitxo batzuk idazteko, marrazki bidez ilustratu, abstraktu zein figuratibo, eta sentimenduen aldizkaritxo bat osatzeko denon ekoizpenekin.

- **Musikaz lagundutako ipuina.** Landu nahi den sentimendua: ezintasunaren mamua.

Sentimenduen lanketa indartzeko, batez ere beldurraren, ezintasunaren, gai ez sentitzearen mamua, musika lagun dugula ipuin bat entzun eta lantzeari ekingo diogu talde handian.

- Ez al zaizue inoiz gertatu zerbait egin nahi eta arrazoia zein den zehazki jakin gabe, hura egiteko ezintasuna sentitzea? “Nahi baina ezin” esamoldea ez al duzue behin baino gehiagotan erabili? Bai? Bada agian ipuin honek arrazoia zein izan daitekeen ulertzen eta horri aurre egiten lagunduko digu, entzun-entzun!

“Kateatutako elefantea” Jorge Bucay

Txikia nintzenean, biziki maite nituen zirkuak. Eta zirkuetatik gehien gustatzen zitzaidana animaliak ziren. Bereziki elefanteek harritzen ninduten eta geroxeago jakin ahal izan nuen beste haur askorentzat ere haiek zirela erakargarrienak.

Ekitaldian, indartsu, sendo, handi ageri zitzaigun elefantetzarra. Baina, bere agerraldia bukatu eta berriz ere eszenatokira bueltatu bitarte horretan, bere hanka inguratzen zuen kate batez, lurrean iltzaturik zegoen hesola bati loturik egoten zen.

Hesola ordea, lurrean zentimetro gutxi batzuk sartuz eutsitako zurezko zati txiki bat besterik ez zen. Eta katea lodia eta sendoa bazen ere, zuhaitz bat sustrai eta guzti lurretik ateratzeko gai zen animaliak, erraz ihes egin zezakeela iruditzen zitzaidan. Misterioa begi-bistakoa zen.

Zerk eusten zuen bada? Zergatik ez zuen ihes egiten?

Bospasei urte nituenean, helduen jakindurian konfiantza nuen oraindik. Irakasle bati galdetu nion, aitari, osabari... zer zela eta ez zuen elefanteak alde egiten. Baten batek esan zidan elefanteak ez zuela alde egiten hezita, etxekotuta zegoelako. Orduan, ageriko galdera egin nuen “ Etxekotuta badago, zergatik kateatzen dute?”

Ez dut erantzun koherenterik jaso nuenik gogoratzen.

Denborarekin, elefantea eta hesolaren misterioaz ahaztu egin nintzen eta inoiz, horrelako galderak bere buruari egiten zizkioten lagunekin topo egiten nuenean bakarrik gogoratzen nintzen gai hartaz.

Duela urte batzuk deskubritu nuen erantzuna aurkitzeko gai izan zenik bazela, nire zorionerako.

“Zirkuko elefanteak ez du ihes egiten txiki-txikitatik antzeko hesola bati loturik bizi izan delako”.

Begiak itxi, eta elefante jaio berri eta babesgabea hesolari lotuta imajinatu nuen. Ziur naiz, une hartan elefanteak tira egin ziola kateari, hesolari... aske geratu nahi zuela. Eta izerdi patsetan eginahalak egin bazituen ere, txikiegia zer orduan eta hesola gogorregia zen berarentzat.

Leher eginda lo hartzen zuela imajinatu nuen eta hala ere, hurrengo egunean, berriz ere tiraka aritzen zela askatu nahirik. Eta hurrengo egunean, eta hurrengoan... Baina, zoritxarreko egun batean, animaliak bere ezintasuna onartu eta tira egiteari utzi zion.

Zirkuari ikusten dugun elefantetzar sendo horrek ez du ihes egiten, gizajoak ezin duela uste duelako. Jaio ondoren sentitu zuen ezintasuna du gordea bere memorian eta ondorioz, eta hau da okerrena, ez du inoiz gehiago bere gaitasunik, bere indarrrik frogan jarri.

Pertsona guztiak gara neurri batean elefantetxea bezalakoak, hainbat hesolei lotuak gaude, gure nahiak osotasunean betetzen uzten ez digutenak. “Ezin dugula” pentsatuaz bizi gara, agian behin antzeko egoera bati aurre egiteko gai izan ez ginelako eta oroimenean oroitzapen hura grabatu genuelako. Kontua da, oroimen horiek ez direla gaur egunekoak, aspaldikoak baizik, eta orain zuok, ez zaretela ordukoak, ezberdinak

zarete, hazi egin zarete eta gauza anitz ikasi ere. Orain, gauza berriak lortzeko gai zaretela jakiteko duzuen aukera bakarra, gogotik eta bihotzez ahalegintzea da, seguru lortuko duzuela, lagunak, EKIN BADA, ANIMO!

### 33. Olerki musikatua

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 121. or.*

Jarduera honekin landu nahi den sentimendua lotsa da.

*Zaharregia, txikiegia agian!* Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal eta Mikel Valverde. Diskoko, 3. kanta, *Lagun bat (haur kanta)*. Diskoa eskuratuz gero, berau jarri. Bestela irakur iezaiezue ikasleei olerkitxo hau zuok nahi duzuen musika jarriaz hondo bezala. Bi aldiz, irakurtzea komeniko litzateke, gero, lotsaren inguruko elkarrizketa sortu dezakezue. Zer den lotsa, zergatik sortzen den, lotsaren ondorioz hainbat traba eta muga jartzen dizkiogula geure buruari eta lotsa onartzen ikasi behar dugula, lotsa sentitu arren ere gauza asko egin daitezkeela, sarritan onarpenak haren desagerpena dakarrela, lotsa gaindituz, denok sentitu dugu noiz edo noiz lotsa...

#### LAGUN BAT

Bada gorroto dudan lagun bat  
zuhaitzean gora egin nahi dudanean  
“ez, ez, ez, hobeto ez” esaten dit,  
“laprast eroriko zara lurrera”.

Bada gorroto dudan lagun bat.  
Futbolean jolastu nahi dudanean  
“ez, ez, ez hobeto ez” esaten dit,  
“ipurdi azpitik sartuko dizute gola”.

Bada gorroto dudan lagun bat.  
Gustuko neskarengana hurreratzean  
“ez, ez, ez, hobeto ez”, esaten dit,  
“ez du zurekin nahiko berak”.

Bada gorroto dudan lagun bat.  
Anaia txikiari musu eman nahi diodanean  
“ez, ez, ez, hobeto ez” esaten dit  
“esnatu egingo da berehala”.

Bada gorroto dudan lagun bat.  
Lagun horren izena lotsa da.  
“Ez, ez, ez, inola ez” esaten diot gauero  
bihar ez dizut kasurik egingo bada”.

**Hitzak: Kirmen Uribe**

**Musika: Mikel Urdangarin**

### **34. Errezetak**

*Kudeaketa: Talde handian/Bakarka/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 36. or./10. lan-koaderno, 22. orrialdetik 24.era*

Dagoeneko hamaiketarako prestatuko duzuen menua hautatzeko eta idazteko momentua heldu zaizue. Hautaketa egin aurretik, talde handian liburuko errezeta-idazketari buruzko informazioa irakurri eta argituko duzue. Gero, ikasleek bakarka, lan-koadernoko 22. eta 23. orrialdeko ariketak osatzeari ekingo diote, errezeten idazketan treba daitezen, aginduak modu ezberdinetan idazten ikasiz, ekintza eta tresna bakoitza bere izenaz izendatuz etab. Bi orrialde hauen berrikusketa taldean egin ostean, talde txikitant antolatuta, menu-hautatze lana egingo dute ikasleek eta bakoitzak taldean adostutako eta egokitu zaion errezeta idatziko du bere lan-koadernoko 24. orrialdean. Irakasle, bidera ezazu hauen berrikusketa, ikasle bakoitzari adieraziz zer motatako zuzenketak egin beharko lituzkeen. Hurrengo lana, errezeta hauek editatzea, ordenagailuz edo eskuz gela guztiak formatu berean idatziz errezetok, eta bildumarako prestatzea izango da, ekin bada, beti ere, kontuan izanik, formatu horretan argazki edo marrazkiarentzako tokia ere egon behar dela.

### **35. Mahai-ingurukoak**

*Kudeaketa: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 37. or.*

Gure kulturaren, hainbat ekintza, janari eta edanarekin estuki loturik daude, ospakizunak adibidez. Holakoetan mahai-inguruan bildu eta “kontuka eta kantuka” orduak ematen ditugu, familiarrean, lagunartean. Une horietan etxeko arteko komunikazioa (kezkek, gorabeherek eta asmoak elkarri kontatuz) eta belaunaldi ezberdinen arteko kultura, hizkuntza eta ohitura transmisioa (gaztetako bizipenak, ohiturak eta oroitzapenak partekatuz) ahalbidetzen da. Horiei guztiei buruz hitz egiteko, talde handian, orrialde horretan proposatzen zaigun jarduera osatzeari ekingo diogu.

### **36. Biba Rioja**

*Kudeaketa: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 102. or.*

Ikasleek bakarka, irakurgaietan duten “Biba Rioja” jan-edanari buruzko abestia irakurri eta honen letrak adierazitakoaren inguruan hausnartu ostean, elkarriketa sortuko dugu, bakoitzak bere iritzia adierazteko. Gero, irakaslearen laguntzaz abestiaren doinua ikasi eta kantatzeari ekingo diogu.

### **37. Txisteak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 100. eta 101. or.*

Tarte bat emango diegu ikasleei txisteak irakur ditzaten. Gero, talde handian txiste bakoitzaren inguruan mintzatuko gara, grazia eta umorea zertan datzan aztertuz. Horren ostean, taldetxoetan txisteetan adierazitako egoera nola antzeztu adostu eta entseatu ostean talde handian antzezteari ekingo diogu. Txiste hauek nahiz gaiarekin zerikusia duten beste batzuk ere bildu eta antzeztu ditzakezue.

### **38. Bertsoz**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 38. or./DVDa/10. lan-koadernoa, 25. eta 26. or.*

Bertsoen munduak eta jan-edanak gure kulturaren badute loturarik, hainbat bertso saio mahai-inguruan antolatzen da eta oholtza gaineko hainbat bertso ere gure jan-edanari buruzko ohitura izaten baitute gai gisa. Esandako guztiaz jabetzeko, ikasleek talde txikitan liburuan proposatzen zaien jardura osatzeari ekingo diote, talde handian horri buruz hitz egiteko elkarrizketa sortu aurretik.

Ondoren, DVDa ikusteari ekingo diogu. Hor behean duzue jatorriaren erreferentzia eta baita bertan entzun daitekeen testu zatia ere.

Bertsoz-eko azken jardura, lan-koadernokoa, ikasleek bakarka osatuko dute, bertsoan, etena zer den ikasi eta praktikan jarriaz, bai idatziz baita abestuz ere.

### **39. Hitzunak eta hizkuntzak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 39. or.*

Herri-hizkera aberatsa da janaren eta edanaren inguruko hitz, esaera, esamolde eta ditzotan, baita hitzetan ere, sarritan euskalki bakoitzean bereak direnak erabiliz. Gure hizkera aberasteko asmoz, talde handian orrialde horretan proposatutako jardura irakurri eta osatzeari ekingo diogu, lana nola burutu planifikatuz eta taldetxoetan hura burutzeko antolatuz eta ekinez.

Jardueran proposatu bezala, posta elektronikoa erabiltzera animatzen zaituztegu beste ikastetxeekin harremana eta komunikazio areagotzeko eta hainbat lan, berri eta asmo konpartituz, harremana sendotu eta zuen lana aberasteko. Dagoeneko zuen ikasleetako gehienek posta elektronikoa erabiltzen jakingo dute, baina gerta daiteke, hura erabiltzen ez dakienik ere aurkitzea, beraz, hura nola erabili azaldu beharko diozue eta praktikan jartzeko aukera ugari eman ere. Kanoia edo arbel digitala duzuenok azalpena talde handiari emateko aukera paregabea izan dezakezue. Posta elektronikoa erabiltzeko landu ditzakezuen edukien artean hauek aurreikusten ditugu guk: mezu bat nola idatzi, nola itsatsi mezuari dokumentuak, hartzaile bakar bati nola bidali dokumentua, hartzaile bat baino gehiagori nola bidali, hainbat helbiderekin egindako agenda nola osatu eta hartzaile taldearen karpeta nola osatu ere bai.

Bestetik, gogoan izan, jardueran hainbat euskalkitan elikagai konkretu bat izendatzeko hitzak biltzea proposatzen bada ere, aukera aprobeztatuz, hitzez gain, tokian tokiko esamoldeak edo janariarekin zerikusirik ez duten bestelako hitzak edo esaerak jasotzeko ere aukera ederra izan daitekeela hau.

### **40. Bizkaiko txerriari jarriak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 103. or./CDa, 25. pista*

Talde handian, “Bizkaiko txerriari jarriak” bertsoa irakurri, haren letraren inguruan hitz egin eta CDa entzun ostean hura kantatzeari eta ikusteari ekingo diogu.

#### **41. Erranak eta Ba al zenekien...?**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Binaka/Talde txikian*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 104. or.*

Tarte bat emango diegu ikasleei irakurgaietako Erranak eta Ba al zenekien?-eko testuak irakurtzeko. Jarraian, horiei buruz hitz egiteko, erranen eta baita janariekin zerikusia duten hainbat aholkuren inguruan ere, elkarrizketa sortuko dugu. Gero, erranekin egiten ohi dugun legez, bi edo hiru laguneko taldeak osatuko ditugu aukeratutako esamoldea erabili daitekeen alegiazko egoera bat asmatzeko eta hura talde handiari dramatizatzen. Zuen hizkera aberasteko, jaso itzazue erranak txokoan, erabiltzeko behar dituzuenen begi bista izan ditzazuen.

#### **42. Digestio-aparatua eta digestio-prozesua**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 40. eta 41. or./10. lan-koadernoan, 27.or.*

Orain arte, gure gorputzak behar dituen mantenugaiak zein diren, mantenugai horien funtzioa eta mantenugai horiek zer elikagaitan aurki daitezkeen aztertu dugu. Orain, elikagai horiek gure gorputzean barrena egiten duten ibilbidea aztertu dugu. Orrialde honetan eta ondorengoetan, beraz, digestio-aparatu eta digestio-prozesuaren berri emango zaigu. Informazio hori ulertzeko, aztertu eta horren inguruan hausnartu. Jarraian hainbat jardura proposatuko zaizkizue, esperimenduak tarteko. Ondoren, ikasleek zatika edo modu gidatuan, liburu eta lan-koadernoko jarduerak osatuz, euren koadernoan digestio-prozesu osoari buruzko eskema jasoko dute. Eskema hori eta digestio-aparatuaren irudi bat aurrean dituztela, informazioa ahoz adierazteko gai izan behar dute, horretan trebatzeko hainbat une eskainiz, liburuak proposatutakoak nahiz irakasleak eskainiak. Ahozko trebatze-lana bukatu ondoren, idatziz bilduko dugu eskemak ematen digun informazioa.

Digestio prozesuari dagokion eskema era askotara egin zitezkeen, xehetasun gehiago edo gutxiagorekin, guk bat proposatzen dizuegu, 41. orrialdean duzuen. Bertan, prozesu osoari dagokion informazioa sintetizatua eta eskema bidez antolatua duzue, orrialde bakar batean, ikaslearen ikaste eta ulertze lana erraztearen alde.

Jarduerari dagokionez, ikasleek bakarka, testua irakurri eta irudia behatuz, informazio zehatza bilatu beharko dute eta euren koadernoan jaso, galderak eta baita dagozkien erantzunak ere. Ondoren, lan-koadernoko jardura osatzeari ekingo diote, digestioan ematen diren prozesuen izaera, kimikoa eta fisikoa (mekanikoa), ulertzeko. Ikasleek euren lana bukatu ostean, liburu eta baita lan-koadernoko jardura ere taldean berrikusi eta zuzentzeari ekingo diogu, honekin batera, digestioari buruzko krokisa aztertu eta behatuko dugu, honi buruzko aurre-ezagutzak martxan jarri eta dakiguna taldean partekatzen. Bukatzeko, 41. orrialde bukaeran adierazi bezala, ondorengo orrialdeetako informazioa eskema bidez jaso beharko dugula argitu ostean, orrialde horretako eskema euren koadernoan jaso eta ikasiko dute. Irakasle, eman itzazu egoki eta beharrezko ikusten dituzun azalpen guztiak eta hornitu itzazue azalpenok, irudi eta adibideekin, ikasleek informazioa errazago uler dezaten.

#### **43. Eskulana: collagea**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 42. or.*

Digestio-aparatuaren zatiak eta digestio-prozesuaren une edo faseei buruzko informazioa errazago asimilatzeke, talde txikitik (bideragarria ikusiz gero, bakoitzak berea egin dezake) eskulan bat egitea proposatzen dizuegu, collagea hain zuzen ere. Jarduera hau egiteko, alde aurretik hainbat txantilo prestatu beharko dituzu, horretarako, atlas anatomikoren bat hartu eta gorputz osoaren eta digestio-prozesuari dagokion organoen profilak kalkatu eta fotokopiatu beharko dituzu ikasleei banatzeko. Irudi hau osotasunean egin beharrean, digestio-prozesuaren fase bat aztertu eta hari dagokion zatia bakarrik osatzea aholkatzen dugu. Era horretan aztertze, ikaste eta irudiaren eraikitze lanak paraleloki egingo ditugu. Bukaeran, noski, prozesu osoari, eskema lagun, azken begirada botako diogu.

#### **44. Aho-fasea**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 43. or./10. lan-koadernoan, 28. eta 29. or.*

Talde handian aho-faseari buruzko informazioa irakurri eta argituko dugu, inguruko irudiei ere erreparatuz. Proposatutako frogak ere martxan jarriko ditugu esandakoa egia den edo ez berresteko. Gogoan izan horretarako, ogi-mamia eta gozokiak behar dituzuela. Ondoren, lan-koadernoko jarduera ere talde handian osatuko dugu, ikasleek ariketa zehatzen bat bakarka egiteko tartetxoren bat eskainiko badugu ere. Argitu ezazue ondo, eskemaren egitura zein izango den, zenbat zati izango dituen eta zati bakoitzean zein motako informazioa jaso behar duten ere (1. atala: organoak, 2. atala: guruinak, 3. atala: urinak, 4. atala: prozesuak). Horretarako irakasle, beha iezaiozu eskemari eta eman itzazu hainbat azalpen, eskema nola egin behar den ulertu dela ziurtatzeko. Aho-fasearen eskema zatia, arbelean denon artean osatuko dugu, eredu den eskeman adierazitako formaren arabera. Aho-faseari dagokion eskema bukatzean, eman iezaiezue ikasleei tarte horren ahozko azalpenean treba daitezen.

Bestetik, gure hizkuntza aberasteko asmoz, 43. orrialdean ageri den gaiari dagokion hiztegia taldean lantzea proposatzen dizuegu, ikasleek, euren eguneroko jardueran, ahoa osatzen duten zati guztien izenak egoki erabiltzen jakin dezaten. Kopia ditzatela ahoaren eta hortzeriaren krokisak beren koadernoan eta bi orrialde hauetan aipatzen diren izenak ikas ditzatela.



DIGESTIO-PROZESUAREN ESKEMA OSOAREN PROPOSAMENA (egoki deritzozen xehetasunekin osa daiteke, noski)

	ORGANOAK	GURUINAK	URINAK	PROZESUAK	
	AHO-FASEA MIHIA	HORTZ-HAGINAK  LISTU-GURUINAK	LISTUA	- Janaria murtzikatu - Janari boloa sortu - Almidoia azukre bihurtu	
DIGESTIO- PROZESUA	URDAIL-FASEA	URDAILA	URDAILEKO GURUINAK	URDAIL-URINA	- Proteinak eta karbohidratoak desegin eta orea egin.
	HESTE-FASEA	HESTE MEHARRA	GIBELA AREA HESTE-GURUINA	BEHAZUNA ARE-URINA HESTE-URINA	- Koipeen, proteinen eta azukreen digestioa - Mantenugaiak banatu
		HESTE LODIA			- Ura eta gatz mineralak xurgatu - Hondakinak uzkitik kanporatu.

#### **45. Hortzeria**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 105. or.*

Hortzeriari buruzko informazio gehiago jasotzeko asmoz, tarte bat emango diegu ikasleei irakurgaietako testua bakarka irakurri eta taldetxotan proposatutakoa egin dezaten, ondoren, talde handian, elkarrizketa sortuko dugu egindakoaz eta irakurritakoari buruz hitz egiteko.

#### **46. Hiztegia aberasten: Zaporeak eta usainak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 44. or.*

Talde handian orrialde horretako informazioa irakurri eta argituko dugu, elkarrizketa bidez, dakiguna elkarri adieraziz. Informazio hau aurreko orrialdean zegoena osatzera dator eta ikasleek ez dute zertan buruz ikasi, jakin beharrekoa hurrengo hau da:

- Lau zapore bereizten ditugula gizakiok: garratza, mingotsa edo mikatza, gozoa eta gazia. Eta zapore hauetako bakoitza duen elikagaien bat gutxienez aipatzen jakitea.
- Hainbat motatako usainak daude: urrinak, usain atseginak edo gozoak; kiratsak edo usain txarrak; eta usain arruntak, ez onak ez txarrak. Eta hauetako usain bakoitza duen elementuren bat aipatzeko gai izan behar dira.

Beraz, esan bezala, orrialde honetako informazioa gure hiztegia aberasteko erabiliko dugu, horretarako, usain edo zapore ezberdinak dituzten elementuen zerrendak osatzeari ekingo diote ikasleak talde txikitan. Bukatzeko, talde handian, taldetxo guztien ekarpenekin zerrenda luze bat osatuko dugu.

Sudurraren krokisa koadernoan jasoko dute eta dagozkion izenak ikasi.

#### **47. Igarkizunak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 106.or.*

Igarkizunak bakarka irakurri eta asmatzeari ekin ostean, talde handian irakurri eta erantzunak partekatzeari ekingo diogu. Hauek dira igarkizunen erantzunak: ahoa, hortz-haginak, mihia, listua, arrautza, gatza, intxaurra, izokina, porrua edo tipula eta angurria.

Sormena garatu nahian, talde txikitan ikasleek igarkizun berriak sortzeari eta beste taldekoak egindakoari asmatzeari ekitea proposatzen dizuegu.

#### **48. Urdail-fasea**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 45. or.*

Talde handian urdail-faseari buruz ditugun aurre-ezagutzak martxan jarri eta orrialde horretan ematen zaigun informazioa irakurri eta argituko dugu. Ondoren, ikasleek, aho-faseko eskema eredu hartuta, euren koadernoan idatziko dute urdail-faseari dagokion eskema zatia. Horren ostean, arbelean denon artean aho-faseari buruzko eskema zatia idatziko dugu informazioa gogora ekartzeko eta urdail-faseari dagokiona ere idatziko dugu. Bukatzean, eskeman oinarrituz, irakasleak bi fase hauei

buruzko informazioa ahoz adierazi diezaieke ikasleei ahozko azalpenaren eredu egoki gisa, erabili beharreko hitzen eta esaldien egiturei buruzko hainbat argibide emanaz. Gero, tarte emango diegu ikasleei ahozko azalpenean treba daitezen.

Gogoan izan, eskulana osatu behar duzuela fase honi dagokionean.

#### **49. Gaiari dagokion ipuina: Bihotzerrearen kulpaz (irakurri aurretik)**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 46. or./Irakurgaiak 5, 107. orrialdetik 111.era*

“Bihotzerrearen kulpaz” ipuinaren irakurketa prestatzera bideratutako jarduera da hau. Irakur- eta ulermen-prozesuan, irakurri aurretik martxan jartzen ditugun prozedura edo estrategien garrantzia azpimarratu nahi da. Horretarako, liburuko 46. orrialdeko galdetegiak markatzen duen hariari jarraiki, behean zehazten diren urratsak eman eta esplika daitezke. Talde handiko elkarrizketa moduan gara daiteke sekuentzia, lehendabizi ikasleei euren erantzun eta hausnarketak azaltzen utziz, euren arteko elkarrizketa eta eztabaida sustatuz; halere, irakasleak izango du azken hitza, berak urrats horiek eman ahala egiten dituen hausnarketak ikasleei adieraziz eta, horrela, eredu gisa aurkeztuz.

- Hipotesiak egitea zer den eta nola egiten diren (izenburutik, gaiari buruz ditugun aurrezagutzetatik, testuaren itxura formaletik... abiatuz) gogora ekarri.
- Izenburutik abiatuz hipotesiak egin. Bihotzerreaz dakitena gogora ekarri. “*Bihotzerreari buruzko informazioa eskaintzen duen testu bat ote da? Ala bihotzerrea duen norbaiti gertatutakoaren kontaketa bat?*”
- Hipotesiak egiaztatu testuari gainbegiratua emanez, hau da, testuaren alderdi formalari erreparatu: izenburuak eta nabarmendutako hitz eta esaldiak, baleude, puntuazio marka nabarmenenak. Kasu, honetan elkarrizketa markek pista argigarria ematen dute testu-motaren inguruan.

Beharrezkotzat joz gero, testuaren bakarkako irakurketari ekin aurretik, beheko hitz eta esamolde horien esanahiak ere argitu daitezke, horrek ikasleen ulermengaitasuna aberastuko baitu:

- *Baratxuria berriz etortzen zait ahora* → baratxuriaren zaporea berriz nabaritu dut ahoan, gora egin dit, berriz etorri zait... (gazt.: *repetir*; fr.: *revenir*)
- *Kontrako eztaarritik joan* → kontrako eztaarria, trakea, biriketako bidea. *Kontrako eztaarritik joan zaio ardo-tantaren bat eta ito beharrean dago.* Hau ulertzeko trakea eta hestegorriaren banaketa non ematen den ikustea egokia litzateke (atlas anatomikoa). Esanahi bereko beste lokuzioak: *okerreko zulotik...*

Lan daitezke, gainera, digestioarekin eta jatearekin zerikusia duten beste esamolde batzuk:

- Betekada, tripakada; lepo egon, bete-beteta egon, goraino egon; lepo jan, bapo jan, ase arte jan...
- Botagale, goragale, goralarri, botagura; botaka, oka eginez, goraka; oka, oka egin; okada, gorakoa...
- Tripa-zorri → Gose bizia. Tripa-zorria egin zait egin dugun ibiliaz.
- Goseak amorratzen egon, goseak hiltzen egon...

Irakurri aurretiko jarduera osatu ostean, ikasleek, bakarka, ipuina irakurriko dute. Irakurketa estrategiaren bat era esplizituan landu nahi izanez gero, edota ikasleen irakurketaren behaketa egin, taldean irakur dezakezue ipuina.

## 50. Irakurri ondoren

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 47. or.*

Bakarka irakurri ondoren, 47. orrialdean eskaintzen den galdetegiaren inguruko talde elkarrizketa bidera daiteke. Galdetegi horren bitartez, lehendabizi, testuko hainbat hitz, pasarte edo gertaera esanguratsuren esanahia interpretatuko dugu, eta horiek norbere bizipen, ezagutza, ideia eta usteekin erlazionatuko ditugu.

- *Zontzonga*; gaitzespen-hitzek eragiten dizkiguten sentipenak.
- *Erretxinduta ibili*; *Zerk erretxindu du andereñoa? Zerk erretxintzen gaitu gu?*
- *Sineskeriak*.

Nahi izanez gero, testuaren ulermen zehatza ziurtatu asmoz, antzerako lanketa egin daiteke beheko hitz, esamolde eta esaldien esanahia interpretatuz. Horiek denak, edo batzuk bakarrik, arbelean idatz ditzakegu, ikasleei horien esanahia pentsatzeko tarte bat eman (testuan bilatu, testuingurua aztertu, interpretatu, esanahia ondorioztatu, adibideak pentsatu), eta ondoren talde handian hitz eginez argitu daitezke.

- *ahalmen miresgarriak*
- *tentuz ibili*
- *animoa abaildu (eta triste jartzen da)*
- *irribarre apala, tristaturik bezala*
- *ni ere hala egongo nintzateke bihotza errea baneuka*
- *zure ezintasun hartan*
- *sigi-saga*
- *hortik datoz komeriak*
- *egingo nuke bihotzerre latzak izaten dituela berak ere*
- *estomagoko zuloa*
- *azido deabru horiek*
- *pairatu*
- *erraza da arroza prestatzea, nik ere badakit → Nola prestatzen da arroza? (errezeta)*
- *sardinak di-da batean prestatzen dira*
- *arrainduna*
- *hasi zen sardinak frijitzen → Nola frijitzen dira sardinak? (errezeta)*
- *ustel usain puntu bat dute*
- *muturtuta*
- *hainbeste kontu eta komeria*

Testuko eduki nagusia haur batek bere andereño erretxinarekin izandako gorabeheren kontaketa den arren, bihotzerreari buruzko hainbat informazio ere eskura daiteke hori irakurriz: bihotzerrea zer jakik eragiten duten, nola sortzen den, nola aurre egin... Ideia horri erreparatuko diogu galdetegiaren amaieran.

## 51. Heste-fasea

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 48. or.*

Beste bi faseekin egin dugun bezala, taldean orrialde honetako informazioa irakurri eta argitu ostean, ikasleek euren koadernoan heste-faseari dagokion eskema zatia jaso beharko dute. Zati honekin digestio prozesuari buruzko informazioa osoa izango dute. Ikus digestio-prozesuaren eskema agertzen den orria (39. orrialdea).

Ez ahaztu, jaso berri duzuen informazioa erabiliz, eskulana bukatu behar duzuela.

## **52. Heste-fasea: esperimntua**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 49. or.*

Heste-fasean odol hodiekin hainbat mantenugai nola xurgatzen duten errazago ulertzeko taldetxoetan esperimntua osatzeari ekingo diogu. Bukatzean esperimntuan proposatutako galderen inguruan eta ateratako ondorioez hitz egiteko elkarrizketa sortuko dugu.

## **53. Hesteetako gaixotasunak eta bestelakoak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 112. or./CDa, 24. pista*

Talde handian irakurgaietako testuak irakurri eta honi buruz dakigunaz hitz egiteko elkarrizketa sortuko dugu. Gero, talde handian nahiz txikian eman iezaiezu ikasleei aukera gai horren inguruan modu serio eta baita xelebrea ere, euren esperientziak elkarri kontatzeko, hain izaten dute atsegin gai hau!

Bukatzeo, Oskorriren abestia kantatzeari ekingo diogu.

## **54. Erlatibozko esaldiak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 50. or./10. lan-koadernoan 30. eta 31. or./CD-ROMa*

Dagoeneko, ikasleek eskema osoa jasoa dute euren koadernoan. Informazio hori ahoz adierazi behar dutenez, ahozko azalpenean trebatzeko, lan-koadernoko, “Esazu horrela”-n proposatutakoa egiteari ekingo diote, erlatibozko esaldiak zuzen egituratzeari, alegia, hizkuntza ahalik eta zuzenen eta zehatzen erabiltzen ikasteko.

Jarduera hau aitzakia, gure ikasleek ohituraz erabiltzen dituzten mota horretako esaldi makurrak eta horiek adierazteko forma egokiak bildu eta “Esazu horrela” izenpean, kartoi mehe batean kopiatu eta gelako pareta batean jarriko ditugu, behar ditugunean erreferentzia gisa izan ditzagun.

## **55. Koadernoan informazio garrantzitsua biltzen**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 50. or.*

Digestio-prozesuari buruzko informazioaz jabetzeko egindako lan guztiaren ondoren, ikasleek, liburuan adierazten zaizkien bi ideia nagusi argi izan behar dituzte. Bi ideia hauek taldean irakurri eta argitu ostean, euren koadernoan jasoko dituzte ikasteko, beharrezkoa dutenean, ahoz nahiz idatziz azaltzeko gai izan daitezten.

## 56. Entzunaldia: bisualizazioa

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 50. or.*

Ikasleek, digestio-prozesuaren kontzientzia har dezaten, hor behean idatzita duzuen testua edo antzekoa irakurri edo kontatu diezaiekezue, eta entzundakoa jarraituz eta musika lagun dutela, janariak euren gorputzean egiten duen “bidaiatxo”, alegia, bidea, bisualizatzeari ekingo diozue, horretarako irudimena eta digestio-aparatua ere martxan jarriaz. Bisualizazio hau burutzeko aukera ezazue musika egoki bat, ahal bada, luze samarra, digestio kontuak ere batzuetan luze jotzen baitute!

Ondoren aurkezten den proposamena, pintxo (ogi xerra, letxuga, tomatea, arrautza egosia eta bokartatxoarekin) batekin egindakoa da. Egin ezazue ikasleekin eredu gisa. Gero, talde txikitari jarrita, ikasleek eurek aukeratutako jakiarekin presta dezatela beste bisualizazio bat, taldean adostuz eta idatziz, erabiliko duten musika ere eurek aukeratu. Prest daukatenean, taldeko kide batek bozeramale lana eginaz bisualizazioa gidatzeari ekingo dio.

*“Imajina ezazu, ogi xerra, letxuga, tomatea, arrautza egosia eta bokartatxoarekin egindako pintxoari haginka egin eta zati bat ahoan sartu duzula... Uummmm! Hau da hau gosea! Hortz-haginak erabiliz, murtxikatzen hasi zara, zenbat zapore! Mihinaren gainaldean dituzun dastamen-papilak burmuinari etengabe informazioa pasatzen ari zaizkie, pintxoaren jaki bakoitzak duen zaporeei buruzko informazioa. Tomatearena, bokartatxoaren gazia... eta letxugak zein zapore du? Mikatza agian? Eta arrautzak? Eta ogiak? Murtxikatu ahala, zure mingainaren laguntzaz, listuarekin nahasten duzu pintxo zatia. Aizu! Ondo murtxika ezazu, badakizu eta, zer esaten duten, janaria ehun bider murtxikatu behar omen dela irentsi aurretik, digestio ona nahi baldin bada! Segi beraz, murtxikatzen eta listuarekin nahasten. Beste jaki guztiak, tomatea, bokartatxo, arrautza eta letxuga, haginekin txikitzen dituzun bitartean, ogi zatia txikitzeaz gain, ahoan deskonposatu beharrean baitzaude, karbohidratoen lehen digestio lana egin behar baituzu, hau da, ogiaren karbohidratoak azukre bihurtu. Segi murtxikatzen, gozoz dago orain zure ahoa, ez al da hala? Lan bikaina egin duzu, boloa ondo-ondo eratuta duzu eta, beno ba ahoan azken buelta eman eta irentsi egingo duzu. Zure faringearren eta hestegorriaren mugimendu mekanikoak lagunduta, hor doa ahoko boloa pixkanaka, beherantz, urdailerantz. Heldu da boloa urdailera. Urdailaren hormak martxan jarri dira. Urdaila urina isurtzen hasi da, janariak substantzia txikiagotan desegin daitezten eta digestio-prozesuak jarrai dezan. Urin hauei esker eta baita urdailaren mugimenduaren eraginez, arrautzaren eta bokartatxoaren proteinak eta baita ogiaren karbohidratoak ere guztiz desegingo dira ahi edo kimu bihurtuz. Utzi urdailari bere lana betetzen eta sentitu nola egiten duen lan hori. Urdailak lan hori bete dezan, odol isuri handia behar izaten du, sentitu nola doan gorputzeko odola zure sabelaldera, lan hori erraztera. Orain, zure gorputzeko energia gehiena urdailean duzu, horregatik ez duzu beste ezer egiteko gogo handirik, ia-ia logura sentitzen duzu, baina zure gorputzak lanean darrai, badu eta lana oraindik. Dagoeneko ahia prest dago eta piloroa ireki egin da, badoa, badoa ahia heste meharrera. Gibela, ahia badatorrela ikusita, hasi da behazuna isurtzen eta berehala bat egiten hasi dira ahia eta behazuna. Behazunak, are-urinak eta heste-urinak bat egin dute orain digestio lana amaitzeko. Jandako pintxoaren mantenugai guztiak digerituta dituzu dagoeneko. Heste meharrereko odol-hodiak horiek xurgatzen hasi zaizkizu, eta odolak era berean gorputz osora banatzen, sentitzen al duzu? Sentitu ezazu gorputza indarberritzen hasten zaizula! Baina, zer gertatu da geratu diren hondakinekin? Hondakinak bere bidean aurrera*

*doaz, heste lodiaren hasieran daude orain, gorputzak ura eta gatz mineralak xurgatu ditu, eta hondakin solidoak, nora doaz hondakin horiek? Gorputzetik atera behar dira, baina noiz? Momentu hori noiz den zuk zeuk inork esan gabe noiz den jakingo duzu!*

### **57. Ahozko azalpenean trebatzeko lana**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 50. or.*

Digestio-prozesuaren ahozko azalpenean trebatzeko talde txikitan antolatuta, liburuan proposatzen zaien jarduera osatzeari ekingo diote ikasleek.

### **58. Bueltako komikia**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 51. or.*

Ikasleek, bakarka, komikia irakurri ostean, talde handian elkarrizketa sortuko dugu hainbat ideian gainean hitz egiteko:

- *Izenburua “Sukalde bete lagun” bizkaieraz oso erabilia den esamoldea da, egitura bera mantenduz bestelako hainbat esamolde osa daitezke: praka bete diru, etxe bete lagun, poltsa bete jan... Aipa itzazue hauek eta baita ezagutzen dituzun beste batzuk ere eta jaso itzazue zuen erranen artean.*

- *Zertan ari dira koadrilakoak? Nola dakizu hori?*

- *Noren etxean daude? Nola dakizu hori?*

- *Zer gertatu zaio Uxueri irabiagailuarekin? Zergatik gertatuko zitzaion hori, zure ustez?*

- *Zure ustez bukatu al dituzte sukaldeko lan guztiak? Zergatik diozu hori?*

- *Zer da gertatu dena, koadrilakoak “Pastela!” garrasika esateko? Argindarrik gabe geratu direla.*

- *Zergatik uste duzu batzuetan salto egiten duela argiak? Agian argindar handia behar duten etxetresna ugari momentu berean erabiltzeagatik.*

- *Inoiz gertatu al da hori zure etxean? Zergatik? Zer egiten duzue horrelakoetan?*

- *Ezetz asmatu zer gertatu zen pastelarekin?*

### **59. Proiektua gauzatzeko**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 52. or.*

Proiektua gauzatzeko unea iritsi denez, talde handian hura burutzeko eman beharreko urratsak taldean irakurri eta eginbeharrekoa planifikatzeari eta burutzeari ekingo diogu, hartutako erabakien arabera. On egin!

“Aharrausi luzea, logura ala gosea?” eta “Gurean, jana eta edana, gura dana” esamoldeen esanahiaren inguruan hitz egin ostean, jaso itzazue erranen txokoan.

Bestetik, “Hango zurrutada (e)ta, hango hortzen dantza, bertsoak gertatzeko primerako saltsa...” laugarren mailako CDan duzuen “Lamikizko sukaldaria” abestiko zatia duzue, ikasleek ezagutzen dute, janaria eta edariarekin lotura zuzena duen abestia izaki, probestu ezazue aukera hura gogora ekartzeko eta abesteko. Beste hau berriz, “Jaunak, hau bai edari goxoa, arimen iratzargarri egin dezagun azken tragoa atea itxi aurretik” Mikel Urdangarinen “Badira hiru aste” diskoko “Edari goxoa” abestiaren zatia duzue.

## 60. Sintesia

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 53. orrialdeetik 56.era*

Unitate honetan hainbat eduki kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko landu dira. Hauetako gehienak prozesuaren baitan behatu eta ebaluatu beharrekoak ziren, bertan hartzen baitute zentzua. Hala nola, hainbat testutan informazioaren zehatzaren bilaketa, eskemen osaketa, esperientzien burutzea, hainbat talde lan planifikatu eta burutzea, hainbat gaien inguruko hausnarketa eta elkarriketa... Baina badira beste batzuk, unitate bukaeran ere ebaluatu daitezkeenak. Orrialde hauek, ikasleei eta baita irakasleei ere, lan horri errazteko pentsatuak eta eginak izan dira. Unitatea bukatu ahala egindako lanari begiratzeko parada emango digute, hainbat balorazio egiteko, ikasleak eurek dakitenaz jabetzeko, eta ez dakitenaz ohartuz, erreparasatu eta ikasi beharrekoa sakontzeko aukera emanaz.

## 61. Hemen edo han, gure Txanelan!

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

Talde handian, unitatea landu bitartean eta baita proiektua burutzean ere (hamaiketako hasi aurretik, bitartean eta ondoren) bildutako argazkiak antolatu eta haiei dagozkien azalpentxoak idatzi ostean, gure albumeko laugarren atala osatuko dugu. Har ezazue denbora egindakoa lasai ikusteko eta hartaz gozatzeko.

## Hiztegia aberasten

Hiztegia aberasteko gaiari dagozkion bestelako esamolde eta lokuzioak:

*Begi(e)z jan*, berehala antzeman, igarri. Oso zaila zirudien arren, begiz jan zuen makina haren funtzionamendua.

*Janda eduki*, aipatu denaz gain beste aukerarik ez eduki.

*Janaldi*, jateari ematen diogun denbora.

*Edanaldi*, edateari eskaintzen zaion denbora.

*Edanezin/edangarri*, edateko gai ez dena eta edan daitekeena.

*Jatuna/edatuna*, jatea eta edatea atsegin duena.

*Mizkina/jakana*, gutxi jaten duena; janari askori muzin egiten diena.

*Mokofina*, elikagai jakin eta sarritan preziatuak bakarrik jatean atsegin duena.

*Janaurrekoa*, aperitiboa.

*Azkenburukoak*, postreak.

*Zizka-mizkak*, pikatzekoak, aperipintxoak.



# Musikako lan-koadernoak

## LAUGARREN UNITATE DIDAKTIKOA

### 4.1 Entzun arretaz

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 30. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 19. pista*

Biko neurrian idatzitako sei eskema dituzue begi-bistan, eta CDan grabatuak ere aurkituko dituzue.

Eskema entzun eta aurkitu egin beharko dute ikasleek, dagokion zenbakia jarritz. Irakasleak erabakiko du CDa nola erabili:

- Ariketa osoa, sei sekuentziak behin eta berriro jarraian entzun ariketa egin arte.
- Eskemak banan-banan entzun, "pause" tekla erabiliz.

Komenigarria bada, hasteko, lan-koadernoan dauden sei eskemak irakurriko ditugu. Lehenik ahoz, eta txaloak joz ondoren.

Ez dugu lan-koadernoan aipatu nahi izan, baina, aurreko zenbait ariketatan bezala, zelula erritmiko bakoitza hots jakin batez apaindu dugu. Irakasleak erabakiko du kontutxo hori ikasleei aipatu ala sorpresa eman. CDan zuriak txindata hotsez, beltzak triangelu hotsez eta kortxeak txilibitu hotsez adierazita daude.

### 4.2 Txirula jotzen ikasten

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 31. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 20. pista*

#### OLARAI

Agian, ahazturik dute ikasleek, baina hirugarren mailan saiatu ziren abesti honekin kanona egiten.

Ohiko prozedurari jarraituko diogu txirularekin oinarritzko lana egiteko. Baina, gero, kanona egingo dugu. Egin genuen bat 2.8 fitxan. Hau pixka bat luzeagoa da, baina, orduan bezala, bi taldetan egitekoa da. Kanona egiteko prozedura 2.8 fitxan proposatutako bera da.

Kontu izan aurki ditzakegun zailtasun txikiekin: anakrusa, Fa sostenitua eta goiko Mi. Agian, "entrenamenduak" egin beharko ditugu.

### 4.3 arnasketa eta musika

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 32. or.*

Lan-koadernoan bertan egin ditugu arnasketari buruzko zenbait gogoeta. Askotan entzun ditugu, badirela, hitz egiterakoan, urduri jarri eta arnasa hartzeko betarik ere ez duten pertsonak. Esaldia moztu beharrean aritzen dira. Batzuetan, hitza zatitzera ere iristen dira. Ez dirudi hala denik, baina intonazioa eta ahoskera bezain garrantzitsua da "tenpo" egokia markatzea hitz egiterakoan edo besteentzat irakurtzerakoan. Pausaldiak aprobetxatu behar dira arnasa hartu eta jarraitzeko. Entzuleak eskertuko du.

Musikan ere gauza bera gertatzen da. Kantatzeko eta haizezko musika-tresnak jotzeko ezinbestekoa da arnasa ongi eta memento egokietan hartzen jakitea. Hitz egiterakoan bezala, esaldi amaierak aprobetxatuko ditugu. Baina askotan esaldiak luze samarrak izan ohi dira, eta iritsi ezinik ibiltzen gara. Zuriak aprobetxatuko ditugu orduan, horien iraupena amaitzear dagoenean arnasa hartuz.

Baina, musika-hizkuntzan, bada arnasa hartzeko unea adierazten digun ikur bat. Ikur hori kakotxa da, eta pentagramaren gainaldean jartzen da. Partituraren egileak, memento horretan arnasa hartzeko gomendioa luzatzen digu. Gehienbat koru edo abesbatzetan erabili ohi da, abeslariak une berean arnasa har dezaten.

Aipatu dugun moduan, haizezko musika-tresnak jotzeko ere behar-beharrezkoa da arnasa ongi hartzea. Guk, txirula jotzen dugunez, ezin ahaztu alderdi hori. Kantatzerakoan bezala, esaldiaren amaierak eta iraupen luzeko noten azken unek aprobetxatzen ditugu arnasa hartzeko, eta naturalki egiten dugu, inork erakutsi gabe. Baina ikur honekin topo egiten badugu, badakigu zertarako den.

Lan-koadernoan zortzi konpasez osaturiko melodiak simple bat jarri dugu. Arnasaren ikurra laugarren konpasaren amaieran kokatu dugu. Ez horrela, pentagramaren amaieran. Bi puntu daudenez, berriro hasi behar dugu melodiarekin, eta nahi eta nahi ez arnasa hartu beharko dugu ikurrik agertu ez arren.

Nahi baduzue, ikurra jar daiteke, baina esaldiaren amaiera denez, arnasa naturalki hartuko dugu, aginduaren zain egon gabe.

Arnasketaren gaia sakontzeko, aurretik landu dugun edozein kanta edo partitura aukeratu eta erabaki genezake denon artean zein izan daitezkeen arnasketaren ikurrak ipintzeko tokirik egokienak.

Hainbat ariketa inprobisa daitezke: sudurretik sakon hartu arnasa, “8” kontatu eta poliki-poliki ahotik bota. Arnasa ez dadila biriketan gelditu, sabeleraino irits dadila. Sentitu nola puzten zaigun sabela eta nola husten den astiro-astiro.

#### 4.4 Txirula jotzen ikasten

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Musikako lan-koaderno, 33. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 21. pista*

#### SEHASKA KANTA (Brahms)

Johanes Brahms (Alemania, 1833-1897) maisu handiak sortutako melodia bat ekarri dugu gurera. Oso ezaguna da. Mundu osoan, lo kantarik ezagunena dela esango genuke.

Letra jartzeaz gain, perkusiozko tresnez orkestratu nahi izan dugu. Panderoek kortxeak markatuko dituzte kanta osoan zehar, konpas bakoitzean sei, bukaerakoan izan ezik, non taupada bakarra duten.

Triangeluek, berriz, hots luzeagoa sortzen dutenez, ohi bezala, konpaseko lehen taupada, taupada fortea markatuko dute.

Pandero- eta triangelu-jotzaileek adi egon beharko dute hasierarekin, anakrusa baitute txirula-jotzaileek, eta, ondorioz, horiek baino beranduago hasi beharko dute. Beheko **Dotik** goiko **Do** bitarteko nota guztiak agertzen zaizkigu kanta honetan.

Pieza hori lantzeko prozedura ohikoa izango da: perkusio-tresnak bakarka lehenik, eta elkarrekin gero. Txirula praktikatu, eta, jarraian, perkusiozko tresnak ezarri. Gauza bera ahotsarekin.

#### 4.5 Musikarien txokoa

*Lan egiteko era: Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoan, 34. or.*

##### SISTROA

Agian, lehen begiradan, zaila irudituko zaigu, baina ez da horrela. Beharrezkoa dugun materiala eskuratzea da lehenengo eginkizuna. Egurrezko ohol meheak, edozein dendatan eskura ditzakegun fruta-kaxetatik lortuko ditugu. Era berean, freskagarrien txapak, edozein tabernatan eska ditzakegu. Aterkiaren hagaxkarik ez badugu, alanbrea erabil dezakegu. Hori bai, sendo samarra izan dadila.

Lan-koadernoan argi agertzen dira musika-tresna bitxi hori egiteko jarraitu beharreko urratsak. Bistan da amaiera zein den, eta, agian, egiteko beste era bat bururatuko zaizue. Garrantzitsuena, zaborretara botatzen diren hainbat material baliatuz, musika-tresna egitea da.

Oharra: perkusioz kanta bat lagundu behar duzuenean, erabili sistroa. Panderetaren funtzioa du.

#### 4.6 Txirula jotzen ikasten

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Musikako lan-koadernoan, 35. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 22. pista*

##### EGIZU LOTXO BAT

Kantatu eta txirulaz jotzeko beste abesti bat da *Egizu lotxo bat*. Hiruko neurrian sortua dago. Kontuan hartzekoak dira: anakrusa, goiko Mi, punttua eta kortxeak, oraingoan bakarka agertzen direnak.

Bestalde, jadanik ezaguna zaizuen kanona ere egin dezakezue, bai kantatuz, bai txirularekin.

Ohiko prozedurari jarraituz, ez duzue arazorik izango.

#### 4.7 Musika folklorikoa eta musika modernoan

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoan, 36. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 23. pista*

Orrialde honetan, musika folklorikoa zer den eta zer ezaugarri dituen hitz egiteko aitzakia eman nahi dizuegu. Eta nola ez, baita musika modernoan hitz egiteko ere.

Hausnarketa egitea proposatzen dugu. Ez gara gu hasiko bakoitzaren ezaugarriak aipatzen, izan ere, asko dakizue horretaz. Hala ere, puntutxo batzuk proposatzeko ausardia izan dugu:

Musika folklorikoa, musika-tresna folklorikoak. *Nork jotzen ditu? Ezagutzen al duzu norbait? Noiz entzuten da? Entzun al duzu inoiz? Gustukoa al duzu? Ba al duzu musika mota horretako grabaziorik?*

Antzeko puntuak aipa daitezke musika modernoari buruz hitz egitekoan ere.

CDan bost musika-pasarte aurkezten ditugu. Lehenengoa eta hirugarrena nabarmen modernoak dira. Bigarrena, jakina, musika folklorikoari dagokio (laugarren pasarte eta azkenekoa).

F eta M erabiliz bereizi beharko dute entzundako musika-pasarte bakoitza.

#### **4.8 Txirula jotzen ikasten**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 37. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 24. pista*

#### **AXEN DRAGOIA**

Simon & Garfunkel bikote estatubatuarrak ezagutzera emandako melodia dugu hori. Kantu alaia da eta haurren gustukoa.

Hatzen trebetasun handia eskatzen du kanta horrek, txirulaz jotzeko garaian. Horregatik, zati korapilatsuenak bereizi eta behin eta berriro praktikatzeko ez digu kalterik egingo. Izan ere, oso bihurriak dira pentagrama bakoitzeko azken bi konpasak.

Ikasleak ez aspertze aldera, gogoratu lehenagotik proposatu ditugun “entrenamendu-jolasak”: *neskak bakarrik, galtzak dituztenak, mutilak bakarrik, belarritakoak dituztenak, beren izenean I dutenak...* Dagoeneko izango dituzue hainbat estrategia.

#### **4.9 Hitz gurutzatuak**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 38. or.*

Agian, batek baino gehiagok pentsatuko du horrelako fitxak jolas hutsak direla. Ez gatoz bat! Horrelako jolasek, batetik, errepasoak egiten laguntzen digute, eta bestetik, musika-hizkuntzaren inguruko nolabaiteko ebaluazio edo kontrol txiki bat dira.

Hamabi galderen erantzun zuzena aurkitu behar da, hitz gurutzatuak osatzeko. Beti bezala, beharrezkoa ikusiz gero, galderak irakurriko ditugu denok batera, baina soluziorik eman gabe; hori bakoitzari dagokio.

Hona hemen erantzunak:

Ezkerretik eskuinera

1. Txalaparta
2. Bost
3. Hamar
4. Sostenitua
5. Elvis
6. Fa Mi

Goitik behera.

- I. Brahms
- II. Arnasa
- III. Zazpi
- IV. Fine
- V. Kalderoia
- VI. Hirukoa

## Lan-koadernotik aparteko kanta: *Argia begietan*

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa, jarduerak, 25. pista*

*Argia begietan  
haizea ezpainetan,  
zutik gaudela eta  
makila eskuetan.*

*Giharren gaitasunak  
aztertzen ari gara,  
elkartasun sendoan  
lagun denak batera.*

*Begira zaudetenok  
hasi lehian gurekin,  
zatozte bat-batean  
zuen makilarekin.*

Kantuarekin batera, erritmo biziz, gorputzeko hainbat gihar mugitzeko aitzakia ematen du kantak.

### MATERIALA

Metro inguruko makila bat ikasle bakoitzarentzat.

### JARRERA

Zutik.

Hau da landu beharreko erritmoa:

h     h     h     h     h     h     h     h  
1     2     3     4     5     6     7     8

### MUGIMENDUAK

